

hh
hik hasi


160

4 EURO • 2011KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**XII. Hik Hasi Udako Topaketa
Pedagogikoak**

LEHEN IRAKURLEAK



MAMU MALTZURRAK


ENRIC LARREULA
JOAN ANTONI POCH



OT SAFARIA

PICANYOL

6 URTETIK AURRERA



PIRATA AUSARTAK

MITXEL MURUA
JULEN TOKERO



JOSETXO HARGINA

MITXEL MURUA
ANTTON OLARIAGA

8 URTETIK AURRERA



NOBIO BAT NIRE AMARENTZAT

CASTILLO SUAREZ
IÑAKI HOLGADO



KANPOKOA NAIZ, ETA ZER

SEVE CALLEJA
EIDER EIBAR

12-16 URTE BITARTEKOENTZAT



AMAIA LAPITZ ETA ERREGINA GORRIAREN HILOBIA

KATIXA AGIRRE



LEHOIEN DANTZAN

FERNANDO MORILLO

aurkibidea



6
gaia

EUSKARA EBALUATZEKO PROBA

“Nola ebaluatu ondo hizkuntza bat?”. Horixe da irakasle askoren kezka, gaur egun. Iñaki Pikabea eta J. F. Lukas Pedagogiako doktore eta EHUko irakasleek galdera horiei erantzungo diete Udako Topaketetan emango duten ikastaroan.



10
elkarrizketa

JOSE RAMON MAUDUIT

40 urte daramatza Jose Ramon Mauduit psikologo eta psikoterapeutak masajeak ematen, nola helduei hala haur jaioberriei. Haurren garapenaren haria hartu eta haurrak dituen gaitasunei jarraipena ematen saiatzen da masajeen bidez.

5 editoriala

6 gaia

EUSKARA EBALUATZEKO PROBA

10 elkarrizketa

JOSE RAMON MAUDUIT

Hainbat Ikastaro

19 Foroa. Espazio Irekiaren Teknologia. Eleder Aurtenetxe

20 Web 2.0 eta Google aplikazioak. Maite Goñi

22 Bideoa editatzen ikasteko. Pelaio Eizagirre

24 Gure adimena nola gidatu ikasten. Urko Arozena

25 Adimen emozionala. Ibon De La Cruz

26 Antzerki irakasle jantziak. EHAZE

27 Lumatik ahora. Ixabel Millet

28 Ez dut zigortu nahi. Nerea Mendizabal

29 Jendaurrean hitz egiten ikasi. Haizea Muñoz

30 Autismoaren azalpena. GAUTENA

31 Familia eta irakasleria. Joxe Amiama

32 2-3 urteko haurren psikomotrizitatea. Alvaro Beñaran

35 Haurrei zuzendutako maskaragintza. Pablo Feo

36 Oh happy, kanta eta dantza ezazu. Ana Elorza

38 Coaching. Mirari Bereziartua

40 Zertan jolastuko gara? Urtxintxa

42 galdeidazue

Hedabideek sexuaz igortzen denetik zer hartu? Nerea Sancho

46 atzeko atetik

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Santa Eulalia de Riuprimer eskolan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2011-06-23). Kopurua: 5.100 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala uztaila

Euskara azterketa garrantzitsuetan baztertua



Ahalegin itzela egiten ari gara hezkuntza euskalduntzeko. Selektibitatea eta Baxoa dira gure lanari, hein handi batean, ezarri dioten sapaia. Teilatu kaskarra, inondik ere, euskal hezkuntzari ipini diotena!

Zer esana eman dute, aurten ere, selektibitatea eta Baxoa probek.

Seaskako ikasleei Baxoa proba euskaraz egitea ukatu die Errektoretzak, aurrez batxilergoa euskaraz egiteko aukera eman bazien ere. Herri honetako egoera paradoxikoak: irakaskuntza prozesu osoa euskaraz egiten duten ikasleei Baxoa azterketak euskaraz egiteko eskubidea ukatzen die Errektoreak.

Logikoa dirudi ikasketak euskaraz egin ondoren, azterketak euskaraz egin ahal izatea. Horrek, gainera -euskaraz aztertzea, alegia-, ikasketen segida asko erraztuko lieke.

Egalité de chances printzipioaz hitz egiten den arren, ikasketa osoak euskaraz egin eta azterketa frantsesez egin beharrak gutxienez bi alboko ondorio ekarriko ditu: alde batetik, ikasleak kaltetzen ditu; azterketa gainditzeko zailtasun gehigarriak ekartzen dizkie, azterketetako emaitzetan eraginez. Eta, beste alde batetik, ikasleak

euskara gero eta gehiago baztertzer aurreratu ditu. Euskararen prestijioan eragina du horrek, euskara ezin daitekeela azterketa garrantzitsuen hizkuntza izan ideia zabaltzen baitu.

Euskal Herriko ikasleek eskubidea dute ikasketak euskaraz egiteko. Eta, noski, ikasketa horiek euskaraz ebaluatuak izateko.

UPNn eta EHUn probak egin dituzten ikasleen erdiek baino gehiagok euskaraz egin dute azterketa. Eskubidea, behintzat, aintzat hartu zaie.

Hainbat azterketen itzulpena, ordea, ez zen zuzena eta horrek bete-betean eragingo du azterketa euskaraz egin dutenen emaitzetan. Harrigarria bada ere, artean azterketak espainolez pentsatu eta diseinatu dira, eta ondoren itzuli. Aztertzaileak aztertu beharraren adibide ezin hobea bihurtu da kasua.

Harrigarriagoa, itzulpen zerbitzu hain kaskarrak izatea beste batzuen maila ebaluatzeko eta kalifikatzeko

zeregina beregain hartu duenak!

Euskal herritarren eskubideak jasota daude Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean, munduko gainerako herritarrenekin batera. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak, bere aldetik, hizkuntza aldetik zein eskubide dagozkigun argi eta garbi azaltzen du.

Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren iritziz, herritar euskaldun orok du eskubidea euskararen lurralde guztietan edozein administraziorekin harremana euskaraz izateko, ahoz zein idatziz. Harreman horrek, ordea, kalitatezko harremana beharko luke, noski.

Ahalegin itzela egiten ari gara hezkuntza euskalduntzeko, baliabide aldetik, ekonomikoki, antolaketa aldetik eta abar. Selektibitatea eta Baxoa dira gure lanari, hein handi batean, ezarri dioten sapaia. Teilatu kaskarra, inondik ere, euskal hezkuntzari ipini diotena!

GAIA

Euskara ebaluatzeko proba





“Nola ebaluatu ondo hizkuntza bat?”. Horixe da irakasle askoren kezka, gaur egun. “Zer nolako irizpideak hartu beharoko lituzkete aintzat euskarairakasleek, ebaluazioa zuzena eta lagungarria izan dadin?”. Iñaki Pikabea eta J. F. Lukas Pedagogiako doktore eta EHuko irakasleek galdera horiei erantzungo diete Udako Topaketetan emango duten ikastaroan, ebaluatzeak espezializazioa eta prestakuntza eskatzen baititu, bi adituen arabera.

G

“Ondo ebaluatzeko kezka areagotu egin da, zorionez”



Iñaki PIKABEA

Euskararen ebaluazioarekiko kezka aspalditxotik dator. Euskara ondo ebaluatzeko kezka betidanik izan dute, bai Eusko Jaurlaritzako sailek eta bai Euskaltzaindiak ere, eta horren ondorio dira garai bateko D eta B tituluak, adibidez. Testuinguru horretan, Iñaki Pikabea eta J. F. Lukas Pedagogiako doktore eta EHuko irakasleek euskara ebaluatzeko probei buruzko ikastaroa emango dute Udako Topaketetan. “Horrelako kezkak areagotu egin dira, ebaluazioak egin ondoren erakundeak tituluak ematen hasi direnean”, azaldu dute irakasleek. “Gaur egun, badakigu euskarako tituluak garrantzi handia dutela esparru askotan; besteak beste, lan munduan. Tituluen kontua alde batera utzita, hezkuntza formalean ere, profesionalak beti izan dute ikasleak ondo ebaluatzeko jakin-mina, betiere, jarduera profesionala hobetu nahian: zertan aurreratu duen ikasle bakoitzak, zertan ez, eta abar”.

Euskal Herrian ebaluatu nahia eta ebaluatu beharra aspalditxotik badatoz ere, bi pedagogoek aldaketa bat ikusi dute azken urteotan: “Esan genezake, zorionez, ondo ebaluatu nahia areagotu egin dela. Alegia, ebaluatzea, beste edozein jarduera bezalaxe, espezializazioa da, prestakuntza eskatzen du, eta gero eta kezka nabarmenagoa sortu du, hutsegiteak baztertu nahian”.

Gaur egun, euskarako irakasleek bi premia mota izaten dituzte, Pikabearen



J.F. LUKAS

eta Lukasen iritziz: bata ohiko ikasleen aurrerapausoen ebaluazioari dagokio; eta bestea, berriz, euskarako tituluren bat emateko egin beharreko ebaluazioari.

“Lehen kasuan, euskarako irakasleek jakin-mina dute: ikasleei laguntzeko, ikasturtea hasi eta 2. hilabetera, 4.era edota 9.era, zer egoeratan dauden jakin nahi dute, hizkuntza trebetasunak nola barneratu dituzten, etab. Prestakuntzazko ebaluazio horrek sekulako garrantzia du, eta oso lagungarria da, neurriak hartu beharoko balira, ahalik eta lasterren hartzeko, eta, horrela, ahalik eta etekin pedagogiko handiena ateratzeko”. Bestalde, euskaltegi askotan, ikasle berri bat matrikulatzen denean, mailakatze azterketak egitea ohikoa dela gogorarazi digute irakasleek, eta diote sarrerako mailakatze hori ahalik eta egokien egiteak ondorengo arazo asko baztertzen dituela.

“Bigarren kasuan, euskarako irakasle asko, aldi berean, aztertzaile dira epaimahaietan edo ikastetxeetako ikasgeletan (DBHn, Batxilergoan...), eta, azterketa horien ondorioz, nota jarri behar dute, edo titulua eman edo ukatu. Aztertzaileok berebiziko kezka dute beren lana ahalik eta modurik txukun eta profesionalenean egiteko, azterketarien gaitasunak neurtzeko eta, agiri ofizial baten bidez, merezi dituzten gaitasunak egiaztatzeko”.

Euskara ebaluatzeko proba

Lehen galdera: zertarako ebaluatu?

EHUko irakasleek emandako datuen arabera, 1982az geroztik, 140.000 herritar baino gehiago dira Euskal Herrian, euskarako tituluren bat dutenak. Baina euskarako titulu horiek askotarikoak dira, eta ugaritasun horrek arazoak sortzen dizkie bai administrazioari eta baita herritarrei ere. “Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzak kezka berezia agertu du Euskal Herrian dauden euskara agiri ugariak (20tik gora) parekatzeko. Tituluen ugaritasun horrek makina bat arazo sortzen zituen herritarren artean (lanpostu baterako erakunde jakin bateko titulua behar zen, baina beste erakunde batekoak ez zuen baliorik, etab.). Bestetik, Europako Kontseiluak **Europako Erreferentzia Marko Bateratua** onartu zuen 2001ean, hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako, eta euskararen ezagutza egiaztatze sistemak horretara egokitzea komeni zela ikusi zen”.

Bi errealitate horiek aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, esparru horretan esku hartzen ari ziren gainerako sail guztiekin batera, Europako Erreferentzia Markoa eta tituluen baliokidetzaz aztertze eta bideratzeko azterketa baten premia ikusi zuen. Europako Kontseiluko herrialde guztietako hizkuntzalari eta pedagogo adituek urte askoan egindako tresna bat da Erreferentzia Markoa. “Ikerketak eta galdeketak zabalak erabiliz garatu den tresna praktikoa da, ikasteko prozesuan mailaketak zehazteko estandar garbiak eskaintzen dituena, eta ikasleen emaitzak nazioartean konparazioak eginez eba-

luatzeko aukera ematen duena. Are gehiago, curriculumak lantzeko eta programak, azterketak eta ebaluazio irizpideak zehazteko abiapuntu adostua da”. Markoaren ikuspegiaren arabera, hizkuntza ikastea komunikatzen ikastea da, irakasleek azaldu dutenez. “Markoak ez ditu irakasteko moduak erakusten. Batez ere, galderak egiten ditu, eta irizpide hauetan dago oinarritua: osotasuna, hizkuntzaren alor guztietara iristea baitu helburu (gaitasuna, trebetasuna eta erabilera); gardentasuna, informazioa argi eta garbi adierazi nahi baitu; eta koherentzia, osagarrien artean erlazio harmonikoa proposatzen baitu (premiak, helburuak, edukiak, materialak, programak, metodoak, ebaluazioa)”. Aldi berean, erreferentzia maila bateratuak proposatzen ditu: A edo oinarritzko erabiltzailearena (A1 hasierakoa eta A2 tartekoa), B edo erabiltzaile independentearena (B1 atalasea eta B2 aurreratua), eta C edo erabiltzaile gaituarena (C1 gaitasun operatibo eraginkorra eta C2 menderatze maila).

Bada, Europako Erreferentzia Markoa eta tituluen baliokidetzaz aztertze eta bideratzeko azterlan bat egiteko eskaera jaso zuten ikastaroa emango duten bi irakasle horiek, Euskal Herriko Unibertsitateko Iñaki Pikabeak eta J.F. Lukasek, eta Kataluniako Generalitateko Neus Figueras-ek; eta egindako azterketaren ondoren, 297/2010 Dekretua arautu zuen Eusko Jaurlaritzak, euskarako tituluen baliokidetzak arautzeko. Aldi berean, azterketa horren bidez, titulu bakoitzaren ebaluazio sistemaren sendotasunak eta ahuleziak aztertu

ziren, eta hobetzeko proposamenak eskaini. “Lan horren ondorioz, euskara-ebaluatzaileen arteko kezka handiaz jabetu gara, eta azkenaldi honetan hainbat ikastaro eman ditugu han-hemenka, kezka horri erantzun nahian”.

Azterketa hori guztia egin eta sistemaren sendotasunak eta ahuleziak aztertu ondoren, Pikabeak eta Lukasek uste dute, ebaluazio zuzen bat egiteko, aurretik honako galdera honi erantzun behar diogula: “Zertarako ebaluatu behar dugu?”. Horren arabera, askotariko irizpideak izango direla diote. “Ikuspegi pedagogiko batetik, irakatsi eta ikasteko prozesuetan ebaluazioak zentzua dauka, baldin eta hobetzeko erabiltzen bada. Zentzu horretan, hor kokatzen bagara, garrantzitsuena non gauden eta nora goazen jakitea da. Eta hori, irakasleak ez ezik, ikasleak ere jakin behar du, bere neurrian, noski. Ebaluazioa, **atzeraelikadura** edo **feedback** egiteko baino, **aurreraelikadura** edo **feedforward** egiteko erabili behar litzateke. Bestalde, titulu batekin lotzen badugu ebaluazioa, neurketak ebaluazioak baino indar handiagoa hartzen du, eta irizpideak aldatu egiten dira hor”. Titulu horren azpian irizpideek argi egon behar dutela diote irakasleek: “Eta ebaluatzaileen ardura eta eginkizuna irizpide horiek frogatzeko beharrezkoak diren probak sortzea, aplikatzea eta zuzentzea izango da”.

Titulua lortzeko, eta ikaslea ebaluatu ahal izateko, azterketak egin behar dira; eta zer izan behar luke kontuan azterketa hori prestatzen ari den irakasleak? “Hemen ere, aurreko galderaren erantzunean azaldu zaigun galdera be-



ra sortuko zaigu: zer asmo du azterketa horrek? Zer egingo da ikasleak eman dako erantzunekin?”.

Hala ere, pedagogoen aburuz, badira kasu guztietan bermatu behar diren hainbat alderdi tekniko: “Hasteko, **objektibotasuna** dugu: azterketa horren ondorioz aterako diren emaitzek zenbat eta garrantzi handiagoa izan, orduan eta objektibotasun handiagoa eskatu beharko diogu azterketari. Bestalde, **fidagarritasuna** dugu: neurtzen edo ebaluatzen duguna zehaztasunez egin behar dugu. Eta, azkenik, **baliozkotasuna** dugu: prestatutako azterketak benetan bete behar duen asmoa edo nahia, eta horiez da bermatzen askotan”. Adibide hau eman dute: “Ikasgai askotako helburuetan edo gaitasunetan, ikasleek hainbat prozesu mental landuko dituztela zehazten da (ulermena, analisia...), baina, ohiko azterketetan, ez da neurtzen edo ebaluatzen ezagutza edo memoria besterik. Horrelakoetan, noski, ez da bermatzen inolaz ere azterketen baliozkotasuna”.

Probak aztertuko dituzte irakasleek parte-hartzaileekin batera ikastaroan, eta itemen analisisian, fidagarritasunean, baliozkotasunean edota baremoen eta puntuazioen interpretazioan sakonduko dute. Saioak teorikoak eta praktikokoak izango dira, eta adibide okerrak eta zuzenak aztertuko dituzte. Adibide oker eta zuzen batzuk aurreratzeko eskatu diegunean, irakasleek zehaztu dute, trebetasunak neurtzean, Erreferentzia Markoak ez duela zehazten nola neurtu; aitzitik, trebetasun guztiak neurtu behar direla dio. “Alde horretatik, zenbait ebaluazio sistematan trebetasun batzuk ez direla neurtzen ikusi dugu, edota neurtze sistema ahula dela. Aldi berean, edozein ebaluazio sistemak oinarizko arau batzuei jarraitu behar die: neurtu beharrekoa neurtu behar du, eta ondo gainera. Adibidez, testu baten ulermena neurtu nahi bada eta, horretarako, aukera anitzeko galderak erabiltzen badira, enuntziatuan soilik beharrezko informazioa erantsi behar da, azterketaria alferrik nahastu gabe eta emaitza kutsatu gabe. Esate

baterako, hona hemen enuntziatu txar bat:

• *Mota zebatz bateko zelulak, talde bereizi batekoak dira eta lan espezializatua dute. Zelula talde honi “ebun” deritzo. Gure gorputzean ebun mota diferenteak ditugu. Ondoko hauetatik, zein izango litzateke “ebun epiteliala”?:*

- A. Tendoiak
- B. Adenoideak eta amigdalak
- C. Muki-mintza
- D. Kartilagoak

Enuntziatu egokiagoa litzateke beste hau:

• *Honako hauetatik, zein izango litzateke “ebun epiteliala”?:*

- A. Tendoiak
- B. Adenoideak eta amigdalak
- C. Muki-mintza
- D. Kartilagoak

Ikastaroa euskarako irakasle orrentzat nahiz hizkuntza irakasle orrentzat prestatu dute Iñaki Pikabeak eta F. Lukas Mujikak. Ikastaroan, saio teoriko eta praktikoen, hainbat gai jorratuko dituzte, gaitasunen ebaluazioa, azterketen eraikuntza, hizkuntza ebaluatzeko baldintzak, hizkuntza azterketak prestatzeko urratsak, Europako Marko Bateratuak dioena, itemen idazketa eta zuzenketa, proba baten egituraketa egokia, etab. “Ikastaroaren atal bat teorikoa izango da, eta hainbat kontzeptu azalduko dira; baina, aldi berean, horren beharrezkoa den praktikotasuna ere izango du. Besteak beste, adibide zuzenak eta okerrak azalduko dira, ariketa txikiak egingo dira, eta norberaren kezkei modu praktikotan erantzuten ahaleginduko gara. Gaiaren izenburua lehorra edo latza izan badaiteke ere, ahal den neurrian, modu arinean lan-tzen saiatuko gara”.



joxe ramon mauduit

ELKARRIZKETA

Psikologoa, psikoterapeuta eta haurren prebentzioan aditua

“Bizitzaren zentzua errazago bilatzen da, baldin eta haurraren gaitasunak hasieratik abian jartzen baldin badira”



“Masajeak ematea jolas egitea da. Jolasaren bitartez haurrari harekin zaudela sentiarazten diozu, harekin jolasten eta hura kontuan hartzen ari zarela, harentzat onena lortu nahian eta harekin aberastu nahian”

Hik Hasiren Udako Topaketetan “Haurrentzako masajea” ikastaroa Mauduitek eskaintzen duen zazpi-garren urtea da. Urtero-urtero, jendez betetzen da gela. Interesak, jakin-minak, bertatik bertarako esperientziak eta beste hainbat sentipenek bultzatuta etortzen dira ikastaroan izena ematen dutenak. Haur eta guzti etortzen dira batzuk, azken finean, ikasitakoa praktikan jartzeko modurik egokiena eta zuzenena horixe baita.

40 urte daramatza Joxe Ramon Mauduit psikologo eta psikoterapeutak helduei eta haur jaioberriei masajeak ematen. Haurraren garapenaren haria hartu, eta, masajeen bidez, haurrak dituen gaitasunei jarraipena ematen saiatzen da.

Lan horrek eta haurrekin duen harremanak eraman du, besteak beste, haurren prebentzioan sakontzera, eta arlo horretan ere egiteko ugari dagoela dio. 8-10 urterekin agertzen diren gaixotasunei eta arazoei txiki-txikitatik aurrea har dakeikeela dio. Gainera, badaki nola egin, zer bidetatik jo, eta erakusteko prest dago. Informazio falta izugarria dagoenez, hasita dago bere esperientzia eta jakituria hedatzen. Hazi Hezi zentroan aldetatik, eta, modu globalagoan, Usurbilgo herrian.



Zertarako balio du haurrentzako masajeak? Zer onura dakarzkio haurrari?

Lehendabizi, haurrak dituen gaitasunak kontuan edukitzeko balio du. Eta baita komunikatzeko ere, haurraren eta gurasoen arteko komunikazioa errazteko; masajearen bitartez, bai adierazpena, bai mugimendua, bai mimika, bai ahotsa... horiek guztiak transmititzen direlako. Eta jolas egiten delako.

Bigarrenik, hainbat tentsio biguntzeko, arintzeko eta bideratzeko. Orain arte ez zen kontuan hartzen haurra nola jaiotzen zen, hau da, zer egoeratan jaiotzen zen. Haur batzuek jaiotzeko uea trauma moduan bizi izan zutela konturatu ginen, forzepsarekin behartuak izan zirelako, luzaroan egon zirelako postura berean, eta lepoa edo beste atalen bat nahiko estu eduki zituztelako, etab. Tentsio horiek denak bidera eta aska daitezke masajeen bidez; eta ondoren, horiek denak askatu eta gero, haurra prest egongo da pertzepzio funtzioak abian jartzeko, hau da, kanpoko informazioa jasotzeko. Izan ere, informazio hori jasotzeko, gorputzak nahiko aske egon behar du. Ez dadila egon horrelako tentsioekin kezkatuta, egon dadila munduak ematen dionari so, aberastasun horretatik abiatuta gartzeko.

Garrantzitsua da bizitzen hasten denetik kontuan edukitzea hori dena, haurrari hasieratik bere gaitasunak bideratzen laguntzeko garrantzi handia duelako garai horrek.

Nik behin eta berriro esaten dut hau: bizitzaren zentzua errazago bilatzen da, baldin eta haurraren gaitasunak hasieratik abian jartzen badira.

Zein dira gaitasun horiek?

Zentzumenak lantzea: usaimena, ikusmena, entzumenak, ukimena eta dastamena.

Horregatik aipatzen duzu ukitu + sentitu = kokatu?

Bai. Ukitzeak pertsonak ukitzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Hori unibertsoaren funtzionamenduan dago kokatuta. Gu etorri garen lekuraino etortzeko, aukeraketa bat egin da, eta eboluzio bat egon da. Gu zerk ukitu gaituen eta nola ukitu gaituen, horrek ekarri gaitu gaurko gaitasunak edukitzera edo bizitzera.

Eta sentitzeak, berriz, jaiotzatik hasita, sentitzeko modu bat garatzeari egiten dio erreferentzia. Pertsona edo animalia bakoitzak bere espeziari dago-kion berezko hezte prozesua du. Horren ondorioz, hazten garenean, gure egitura izaten dugu, eta munduarekin erlazionatzeko modu bat edo beste bat. Adibidez, gizakiaren kasuan, haren sentitzeko modua landua eta bideratua izan bada, haren gaitasunak aintzat hartu baldin badira, sentitzeko bide hori aberastasunez bete duela esango dugu. Eta oraindik ere aberasten joateko gaitasun handia dugunez, gero eta sentibilitate handiagoa barneratzen joango gara.

Horregatik, sentitzeak izugarritzko garrantzia du, gure benetako kokapen eta integratziora heltzen garenean. Izan ere, heldua izatea oso gaitasun garrantzitsuekin dago lotuta, ez da soilik bi hanken gainean egotea, nola baizik. Nola gauden kokatuta. Ez da geure buruarekin gaudela sentitzea soilik, horrekin batera ondo jakin behar da zein ingurutan gauden, eta inguru horrekin harremanetan nola kokatzen garen, eta nola eboluzionatzen dugun. Horixe litzateke kokatzea.

Larruazala ukitzeko premiaz, sentitzeko premiaz hitz egingo duzu ikastaroan. Zer nolako garrantzia du larruazalak?

Larruazalak izugarritzko garrantzia dauka. Zeren, *kokatu* esaten dugune-



an, ondo nabaritu behar dugu geure barrukoaren eta kanpokoaren arteko aldea. Eta hori larruazalaren bitartez egiten dugu. Larruazalak izugarritzko sentibilitatea dauka, burmuinean kokatzen da. Beraz, gure azalaren sentibilitatea zenbat eta garbiago eduki, gure azalean ondo kokatuta baldin badaukagu, barruko zein kanpoko funtzio guztiak egokitzen lagunduko digu horrek.

Masajeak azala lantzen du, eta gorputzeko atalak lantzen dira horrela, tentsioa eduki dezaketen atalak. Tentsioak bigundu egiten dira, giharrek tonua, izaera, berreskuratzen dute, eta gorputzeko tentsioak saihestu egiten dira. Horren ondorioz, barruko ahalmenak bideratu egiten dira.

Larruazala gorputzeko zatirik zabalena da, eta izugarritzko garrantzia dauka burmuinean. Garrantzi handia dauka haurraren lehendabiziko urtean horrek. Zeren, gorputza zutik jartzeko bidean artikulazio guztiak masajeen bidez ondo goxatu baldin badira, gorputza lurrean jartzeko modua oso koherentea izango da gorputzeko sentipenekin. Bizitzaren bizitasuna barruan sentituko du. Horrela, tentsioak ere saihestu edo bideratu egiten dira, gorputzak ez du tentsio horiekin borroka egin beharko.

Zer jakin behar dugu haurrei

masajeak emateko? Nola has gaitetzke?

Hasteko, haurraren gorputzaren gainean eskuak jartzen ditugunean, haren erreakzioak eta gureak ikusi behar dira. Nola gauden eta haurra nola dagoen ikusi behar da, zein den bakoitzaren egoera. Une batzuetan ezinezkoa da masajeak ematea; beste batzuetan, egoera egokia da, eta aurrera, beraz: gorputzari tankera hartu, eta, eskuak sartuz, jolas bat sortu. Hori da egin behar dena. Jolas horretan sortzaile izanez gero, oso lan polita egiten da.

Baina ez da masajea ematea soilik. Masajea ematen duena lurrean dago, eta jolas egitera ohitu behar du. Elementu garrantzitsuena jolas egitea da. Jolas egiteko gai baldin bazara, jolasean sartzen baldin bazara, zuk zeure barruarekin malgutasun handia daukazu esan nahi du, eta haurraren malgutasuna ere kontuan hartzen ari zarela, eta hori lantzen saiatzen ari zarela. Jolasak izugarritzko garrantzia dauka. Jolasaren bitartez, mimika eginez, kontuak esanez... haurrari harekin zaudela sentiarazten diozu, harekin jolasten eta hura kontuan hartzen ari zarela, harentzat onena lortu nahian eta harekin aberastu nahian.

Haurraren gaitasunak lantzea eta haurra aintzat hartzea aipatzen duzu uneoro. Horri esaten zaio

E

“**Errespetuzko heziketak haurrak dituen gaitasunei eta haren hezteko gaitasunei baldintza egokiak bilatzea esan nahi du” MOEk (Munduko Osasun Erakundea) esaten du gurasoek eta profesionalek (hezitzaileak, pediatrak, emaginak...) irizpide bateratuekin jardun behar dutela, haurren heziketa bideratzeko**”

errespetuzko heziketa?

Noski, zeren, errespetuzko heziketa esaten dugunean, haurrak dituen gaitasunetarako eta haren hezteko gaitasunetarako baldintza egokiak bilatzea esan nahi dugu. Modu horretan, haur horrek etorkizunean nolabait ere gaitasun handiagoa izan dezan bideratzen ari gara: munduan egoteko, oreka edukitzeko, koordinatzeko, hausnartzeko (hausnartzeak ekintzei aurre hartzea esan nahi du)... gaitasun handiagoa izango du.

Horretarako, nahitaezkoa da norberaren barruan prozesu horiek nola gertatzen diren bizi izatea eta esperimintatzea. Bizipen hori zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta jarrera irekiagoa izango dugu berrikuntzen aurrean.

Horren gabeziarik sumatzen al duzu? Errespetuzko heziketa hori bai dago?

Gaur egun, oraindik ere ez gara ohartu haurren gaitasunak zein diren eta nola landu behar diren. Helduon oreka ez da lortu oraindik, ez da ase. Helduok, oraindik ere, nahikoa lan dugu geure arazoekin. Askotan, ez dakigu nondik nora jo, gure gaitasunak ongi kokatu gabe ditugu oraindik... Horregatik, lehendabizi gu geu gustura sentitu bitartean, arazoak izango ditugu, haurren heziketari behar den moduan kasu egiteko.

Oraindik produktibitateak dauka indarra: egiteak, ez izateak. Baina, izan gabe, nola egin? Lehendabizi, gara, eta, gero, garen horrekin egiten dugu eta ikusten dugu zer egin behar ditugun.

Oraindik ere jolasean ari gara, haurrak jostailuak balira bezala. Oraindik ez gara ohartu gure izateak oinarri bat duela; alegia, gure barruko integrazioa eta gure barruko gaitasunen koordinazioa gauzatzea. Orduan sentitzen gara gure barruaren jabe, eta orduan ibiltzen gara gure erritmoan, ez besteenean. Horrekin kokatzen dugu gure izatea.

Hortaz, zer egin beharko lukete gurasoek, beren seme-alabentzat errespetuzko heziketa nahi badute?

Gurasoek, beren buruarekin ongi sentitzea lortu eta gero, beraien nahia aurrera eramateko ingurune bat behar dute. Gaur egungo gizartean guraso askok ahalik eta harremanik eta maitasunik sakonena eduki nahi dute seme-alabekin, baina gizartea noraezean dabilenez, gauzak ez dira erabakitzen haurrei begira. Horren ondorioz, gurasoak bakarrik sentitzen dira, ez dakite zein den erantzun egokiena. Eta, gainera, zailtasun ugari dituzte, ekonomikoak, denbora aldetikoak, bitartekoen gabezia... Gaur egun, guraso askok borroka handia egin behar dute seme-alabekiko harreman aberats hori aurrera ateratzeko, benetan nahi izan arren.

Horrez gain, gaur egun, ezjakintasun handia dago haurren gaitasunen inguruan. Eta informazio hori behar dute gurasoek. Hor lan handia dago egiteko.

Beste alderdi bat hezitzaileekiko komunikazioa da. Funtsezkoa da hori. Errespetuzko heziketa nahi badugu, gurasoen eta hezitzaileen arteko komunikazioak aberatsa eta konfiantzazkoa izan behar du. Denek norabide berean lan egin behar dute.

Hezitzaile guztiek irizpide bera eduki behar dute haurra hezteko garaian, eta gurasoek horren berri izan behar dute, haurren garatze bide horren berri izan behar dute. Gurasoen eta hezitzaileen arteko kolaborazioa funtsezko elementua da. Eta horretan ari gara Usurbilen.

Nolako esperientzia jarri duzue abian Usurbilen?

Usurbilgo haur eskolan, haurrei masajeak ematen hasi ginen. Ohartu ginen, masajeak ez ezik, oinarri guztia landu behar zela; hau da, gurasoen prestakuntza eta informazioa, hezitzaileen arteko laguntza, gurasoen eta hezitzaileen arteko koordinazioa eta kolaborazioa, haurren beharrak eta gaitasunak...

Errespetuzko heziketa baterako, funtsezkoa da denek oinarrizko beharrak aseta edukitzea. Horregatik, haur eskolako partaide guztiekin ez ezik,

herriko pediarrarekin, emaginarekin, ikastolarekin eta udalarekin batera abiatu dugu prozesua. Denak bateratuta eta norabide berean. Helburua haurren gaitasunak lantzea da, gerora eduki ditzaketen zailtasunak eta gaixotasunak saihesteko.

MOEk (Munduko Osasun Erakunde) esan du gurasoek eta profesionalak (hezitzaileak, pediarrak, emaginak...) irizpide bateratuekin jardun behar dutela, haurren heziketa bideratzeko, haurren gaitasunak zein diren eta nola oreka daitezkeen erabakitze eta bideratzeko, alegia. Batasun hori aintzat hartuta abiatu gara Usurbilen.

Zer aldaketa egin dituzue hori bideratzeko?

Orain arteko esperientziak erakutsi digu sortzen diren estres egoerak kontuan hartu behar direla, bai hezitzaileenak eta bai haurrenak. Zeren, haurrek estres egoera bizi badute, hezitzaileak ere kutsatu egiten dira, eta haiek ere bizi dituzte. Beraz, estresa sortzen duten egoerak nola saihestu eta, horretarako, zer laguntza bilatu ari gara lantzen.

Irtenbide batzuk aurkitu ditugu. Esate baterako, lehen haurrak etzaulkietan egoten ziren, eta orain, berriz, lurrean egoten dira. Horrela, haurren gaitasunak abian jartzen dira, eta baita ikertzeko gaitasuna ere. Noski, lasaia egoten dira egoera horretan.

Topatu ditugu hezitzaileen estresa gainditzeko bideak ere. Hezitzaile asko estresak jota egoten dira egun askotan. Baina normala dela edo horrelakoak askotan gertatzen direla esaten dugunez eta arrazoiak jotzen ez denez, jasan egin behar dutela uste dugu. Eta hori ezin da horrela izan. Landu egin behar da, eta hezitzaileek laguntza behar dute, ezinean dabiltzanean. Zailtasunak bideratzeko, laguntza eduki behar da inguruan. Ezin da pentsatu norberak bakarrik bilatu behar diola irtenbidea bere egoerari. Horregatik, bildu egiten gara, eta hezitzaileek dituzten beharrak, arazoak eta kezkak izaten ditugu hizpide. Horretan ari gara, eta sakon-

tzen jarraitu behar dugu.

Horrez gain, bada lantzen dugun beste alderdi bat, garrantzitsuenak guretzat: nola lortu amaren eta hezitzaileen arteko harremana ona izan dadin, haurrak hezitzailea erreferentziatzeko bigarren pertsonatzat har dezan, horrek segurtasuna eta lasaitasuna ematen baitizkio. Helburua da amaren eta hezitzailearen arteko harremana ama haurdun dagoenetik hasia. Horretarako, haurdun dagoenean haur eskolara etor daiteke ama, eta gero, lanean hasi baino lehen, aurreneko lau hilabeteetan ere bai, haurrarekin. Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta segurtasun handiagoa sentituko du haurrak banaketa garaia iristen denean, haurra konfiantzazko norbaitekin geldituko delako. Hezitzaileak amarekin duen harremanak lasaitasuna emango dio haurrari. Egokitzapena oso kontuan hartzen dugu, haurrak amarengandik banatzean aldaketa bortitzik jasan ez dezan.

Zer gehiago ekar dezake lankidetzak horrek?

Prebentzioa erraztu dezake. Esate baterako, haurren heziketa prozesuan desberdintasun handiak egon daitezke, eta hezitzaileek ez dakite askotan nola aurre gin desberdintasun horiei. Horrelakoetan, gurasoek haurrei buruzko informazioa ematen baldin badiete, asko errazten da kontua. Hezitzaileek, informazio hori edukita, beste leku batzuetara jo dezake laguntza eske, eta haurren ezintasunei begiratzen hasten dira, 8 urtera arte edo ikasketetan zailtasunak eduki arte itxaron ordez. Zenbait gauza aurretik ikus eta bidera daitezke, elkarlan eta komunikazio horri esker.

Prebentzioa litzateke hori. Baina jabetzen al gara benetan prebentzioak duen garrantziaz? Zeren, gaur egun, prebentzioak baino pisu handiagoa du ondorengo medikazioak.

Kontuan eduki behar dugu medikazioak sintomak isilarazten dituela, baina sintomek hor jarraitzen dutela,



“Diru asko gastatzen da gaixotasunak tratatzen. Eta hobe litzateke askoz gaixotasuna sortu baino lehen haurrei behar duten arreta ematea, eta haurrek behar duten heziketa prozesu horri kasu egitea. Hori izango litzateke prebentzioa”

isilduta edo ezkutuan. Eta noski, isiltzea baino garrantzitsuagoa da erantzuna bilatzea eta haurraren gaitasunei leku egitea. Zeren, sendagaiak izaera alda dezakete. Adibidez, gaur egun hiperaktibitatea tratatzeko sendagaiak erraz ematen dira, eta sendagaiak hartzen hasi aurretik, beste gauza asko eduki behar dira kontuan. Esate baterako, haurraren hiperaktibitatea sortu duen estresa non dagoen, hipertonia non duen, eta zein garaitan gertatu den haurraren erritmoa aldarazi duen egoera.

Garbi eduki behar genuke, prebentzioan arreta jarritz gero, gauzei aurrea hartuz gero, arazo eta zailtasun gutxiago izango dituztela haurrek gerora. Horretarako, MOEk esaten duena egin behar dugu: profesionali eta gurasoei informazioa eman, eta ahalik eta orientabide koordinatuenak bideratu. Badago horren beharra.

Ez gara konturatzen nola sortzen diren gaixotasunak. Haurraren osasuna bideratzeko gaitasuna galtzen ari gara. MOEk dio haurraren osasuna kolokan dagoela, eta kalte handia egingo duten ondorioak datozela. Gero, 8-10 urte dituztenean hasten gara konturatzen zerbait ez doala ondo, edo zailtasunak dituztela... Lehen urteetako prebentzioa da hori saihesteko modua. Diru asko gastatzen da gaixotasunak tratatzen. Eta hobe litzateke askoz gaixotasuna sortu baino lehen haurrei behar duten arreta ematea, eta haurrek behar duten heziketa prozesu horri kasu egitea. Hori izango litzateke prebentzioa.

Zer-nolako ratioa eskatuko luke errespetuzko heziketak haur eskola batean?

Zenbat haur hezitzaile batekin? Hori zehaztea ez da batere erraza. Zeren, egun batean haur bat aztoratu samar egon daiteke, hortzetako mina edo beste zerbait duelako, eta, orduan, askoz gehiago eskatuko du. Gelan horrelako bi baldin badauzkazu, lau haur soilik izanda ere, estresa sortuko zaizu horrelako birekin. Egun batean hezitzaile bat ederki asko egon daiteke zor-

tzi haurrekin, eta hurrengo egunean, egoera erabat aldatuta, ezinezkoa izan daiteke hori. Estresa onartzen ez dugun bitartean eta kontuan edukitzen ez dugun bitartean, zaila da ratioa zehaztea.

Orduan, malgutasuna beharko litzateke: horrelako egoeretan hezitzaile gehiago, eta egoera lasaiagoetan, berriaz, gutxiago. Egoerak zaindu egin behar ditugu, eta irtenbide egokia emango litzateke horrela.

Mirtha Chokler psikomotrizista argentinarrak zera zioen: “Ez eseri haurrak denbora baino lehen, ez heldu eskuetatik oinez ikas dezaten. Utzi lurrean egoten eta bera hasiko da”. Ados al zaude horrekin?

Gutziz ados nago Mirtha Choklerrek dioenarekin. Gaur egungo gizarteak duen jarreraren ondorioa da: dena presaka eta azkar egin behar. Oraindik ere ez dugu ulertzen haurra, ez dakigu zer gertatzen zaion.

Oso garrantzitsua da hau jakitea: haurrak mugimendu guztiak gorputzak eskatu ahala bere kasa egiten dituztenean, orduan soilik egiten da bere buruaren jabe. Eta bere buruaren edo mugimenduen jabe izateak izugarriko garrantzia dauka, etorkizunera begira. Izan ere, gu geure barruko beharren arabera mugitzen gara, eta behar horiek txikitatik barneratuta badauzkagu, horrek esan nahi du gure barruko sendotasuna barneratuta daukagula. Gure barruan halako koherentzia eta integrazioa dugunez, gure mugimenduei ere etengabe bilatzen diegu zentzua, ez gara gelditzen besteek zer esango edo zer egingo. Guk zer nahi dugun kontuan edukita bizitzen ohituta gaude, eta, horri esker, guk nahi dugun hori eramaten dugu aurrera.

Horregatik, haurra eserita guk jarritzen badugu edo ibil dadin eskuetatik heltzen badiogu, eten egiten dugu hori. Haurrari besteek laguntzen diote, besteek eramaten dute, ez da bere kasa hasten.

Aldiz, 3 urte bitartean, haurraren gorputzaren integrazioa osatuz doa, ar-

tikulazioak landu egiten ditu, eta estimuluak ez dira gelditu ere egiten, hori dena ondo garatu arte. Orduan, haurra minik hartzeko arriskurik ez duen leku batean uzten baduzu, haurra ez da gelditu ere egingo, esperimentatuz, esperimentatuz eta esperimentatuz bere gorputzari satisfazioa ematen dioten mugimendu guztiak egingo ditu.

Hori ere ez dugu ikusten gizarte honetan. Ez daukagu horretarako espazio egokirik. Gaur egun, edozein parкетara joan, eta lurra gogorra da, edo ez ditu haurrak lurrean ibiltzera bultzatzen. Lurrean etzanda ibiltzea gaizki ikusita dago. Badirudi garbitasuna dela garrantzitsua. Eta ez gara konturatzen haurrari lurrean ibiltzeak ematen diola plazerik handiena.

Horixe da, gainera, niretzat, garrantziko erreferentzia bat: lurraren kudeaketa. Lurraren bitartez kokatzen baitute hurrek beren bertikaltasuna.

Orduan, lurrean ibiltzea funtsezkoa da, gero ongi ibiltzen ikasteko.

Hasieratik haurra lurrean jartzen baduzu, berehala hasten da gorputzarekin jolasean, eta, jolas horretan, beti gorputzeko atalak lantzen aritzen da. Garapen prozesua burutik hanketara osatzen denez, sentsibilitatea nora joaten zaion, hura garatzen hasten da.

3-4 hilabeterekin, eskuak sentitzen hasten da. Ahoan daukan sentsibilitate guztia eskuak ahora eramanez konkistatu nahi izango du.

Gorputza, lehendabizi, lurrean etzanda egoten da, eta, arrastaka, erakartzen duen helburuaren bila joaten da. Hor buruak izugarritzko lana egiten du: helburuak ditu, eta helburu horiek asetzeko, gorputzari dituen bitartekoak erabiltzeko eskatzen dio. Bitarteko horiek, poliki-poliki, aberastuz joaten dira. Eta aberaste prozesu hori esperimentatzen ari den heinean, konturatzen da espazioa konkistatzeko bere gorputzak dituen gaitasunak handituz doazela. Beraz, hori zenbat eta gehiago bizi duen eta zenbat eta berezkoagoa duen, gorputzaren jabe egiten joango da.



Gero, lurrean arrastaka ibiltzetik lau hankan ibiltzera pasatzen da. Eta, gero, makurtuta eta zutik jartzera. Zutik jartzen denean, behin eta berriro, gorputza bota eta zutitu egiten du, bota eta zutitu... Gorputzeko pertzepzioa, oreka eta koordinazioa ondo kokatu nahi dituelako egiten du hori.

Horregatik, zutik jartzeak, bertikaltasun horrek, izugarritzko garrantzia dauka. Baina ez lurrean dagoen unetik, jaiotzen den unetik bertatik baizik. Zeren, haurraren zentzumenak oso irekita egoten dira, berehala hasten dira zentzumenen bidezko integrazioa lantzen; begirada, usaimena... hasieratik hasten dira mugimendu guztiak integratzen. Oso integrazio konplexua da, eta hasieratik eduki behar da kontuan, ez lurrean dagoenetik soilik.

Helduak ikusita, garbi ikusten dut prozesu horrek duen garrantzia. Urte asko daramatzat helduei masajeak ematen, eta askok hipotonia daukate gerrian, orno lunbarrak ez zirelako behar adinako denborarekin landu ondo jartzeko, kokatzeko. Horren ondorioz, ahulezia edo gaixotasun asko dakartzagu txikitatik, hezte prozesua ongi bideratu ez dugulako.

Gaur egun, informazio kaxkarra dugu horri guztiari buruz.

Gaur egun, oraindik, produktibitateak dauka indarra: egiteak, ez izateak. Baina, izan gabe, nola egin? Lehendabizi gara, eta, gero, garen horrekin egiten dugu eta ikusten dugu zer egin behar ditugun.

Oraindik ere jolasean ari gara, haurrak jostailuak balira bezala. Oraindik ez gara ohartu gure izateak oinarri bat duela; alegia, gure barruko integrazioa eta gure barruko gaitasunen koordinazioa gauzatzea. Orduan sentitzen gara gure barruaren jabe, eta orduan ibiltzen gara gure erritmoan, ez besteenean. Horrekin kokatzen dugu gure izatea.

Gaur egun, masajeen eragina oso garrantzitsua da, gorputz sendoa izateko.

Urte eta bost hilabeteko haur batek erraz egiten zuen negar, eta zorabiatu egiten zen. Behin, diafragman eta bularraldean masajeak eman eta gune horiek landu nizkion. Egun hartan lo sakon egin zuen, eta, geroztik, ez zuen halakorik sentitu.

Hainbat adinetako haurrentzat prestatutako ipuin kontaketa dramatizatua

JOSEBA SARRIONANDIAren
“**Idazlea zeu zara, irakurtzen
duzulako**” liburuko ipuinak
eskoletara eramateko prest
ditugu datorren ikasterterako.

BI IKUSKIZUN MOTA:

***6-7-8-9 urtekoentzat**

(Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo)

***9-10-11-12 urtekoentzat**

(Ander Lipus eta Miren Gaztañaga)

Informazio gehiago:

Xabino Alkorta (+34) 615 779 511

info@artedrama.com

www.artedrama.com

Egitasmoaren sustatzaileak:

Artedrama eta

Dejabu Panpin laborategia

AKTOREAK

Ander Lipus

Ainara Gurrutxaga

Miren Gaztañaga

Urko Redondo

Hainbat
eskolatan
lantzen
ari
den
hausnarketa
sustatzen
duen
liburua.



Eleder AURTENETXE PILDAIN

Hezkuntzaren etorkizuna amesgai, ekingai

“Nola hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak?”



Eleder AURTENETXE PILDAIN

ESPAZIO IREKIAN ADITUA

Hezkuntzari buruz hausnartzeko foro berezia egingo dugu Udako Topaketetan, Eleder Aurtenetxek bideraturik eta Espazio Irekiaren Teknologia erabiliz. Parte-hartze handia bultzatzen duen teknika honekin, zer hezkuntza mota nahi dugun eztabaidatuko dugu, nola irudikatzen dugun hezkuntza-eragilea etorkizuneko gizartean, zertan ari garen asmatzen eta zertan ez horrenbeste... eta parte-hartzaileek ekarriko dituzten gai guztiak ere eztabaidatuko dira lantaldetan.

Maite GOÑI

Web 2.0 eta Google aplikazioak irakaskuntzan

“Konpetentzia digitalak lortzea ezinbestekoa izango da egungo irakaslearentzat, gure ikasleak natibo digitalak baitira”



Maite GOÑI

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ETA
ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAKO IKT-KO PARTAIDEA

Informazioa bilatu, gorde, antolatu eta partekatzeko modu eraginkorrek azalduko ditu Goñik ikastaroan zehar.

Informazioa guk maneiatzen ikasi behar dugula diozu, ez informazioak gu. Horretarako, ze tresna ezagutu behar ditugu gutxien-gutxienez?

Gaur egun informazio uholdea izugarria da, intoxikazioaren garaian bizi garela esan ohi da. Alde guztietatik iristen zaigu zer edo zer interesgarria, baliagarria.... Baina nola kudeatu informazio hori guztia? Bestalde, azken urteotan asko aldatu da informazioa iristeko modua; izan ere, kontzeptu aldaketa nabarmena egon da horren guztiaren atzean. Duela gutxi arte gu joaten ginen informazio bila (telebista edo irratia piztu, berriak ikusi edo entzuteko; prentsa erosi, gertatzen ari zenaren berri izateko...); orain, dauden baliabideak ondo erabiltzen jakinez gero, informazioa da gugana hel daitekeena.

Internet izan da giltzarri kontzeptu aldaketa horretan eta baita RSS (Real Simple Syndication) delakoa ere. Esan bezala, iristen zaigun informazio gehiena bertatik jasotzen dugu, baina hainbeste ugaldtu da informazio kantitatea, non informazioa jasotzea bezain garrantzitsua den informazio hori kudeatzeko gaitasuna eta tresnak eskura izatea. Esparru horretan, ezinbestekoa iruditzen zait ezagutzea batzaile edo jario-irakurleak eta markagune sozialak, hau da, Google Reader, Twitter eta Delicious bezalako tresnak. Dena den, ez ditugu horiek guztiak ikastaroan ikusiko.

Zein izango da ikastaroaren helburua?

Ikastaro honetan IKTei buruzko hausnarketa bultzatuko dugu, hausnarketa kritikoa. Zein onura ekar die-

zaioke teknologia berriak irakaskuntzari? Egungo irakaslea prestatuta al dago aldaketarako? Galdera horiei eta gehiagori erantzuna ematen saiatu gara. Halere, praktikan oinarritua egongo da ikastaroa; izan ere, helburu nagusia Googlek eskaintzen dizkigun hainbat tresna eta baliabide ezagutzeaz gain, gure eguneroko jardunean horietatik zeintzuk txerta ditzakegun erabakitzea izango baita.

Bestalde, dakigun bezala, azkenaldian joera da gero eta gutxiago lan egitea nor bere ordenagailuan instalatutako aplikazioekin eta gehiago “hodeian” lan egitea. Baina zer da hodeia edo “Cloud Computing” delakoa? Bada, ikastaroan Googlen hodeian lan egiteko ofimatika paketea -nolabait deitzearren- ezagutu eta praktikan erabiliko dugu.




XXI. mendeko irakasleak informazioa bilatu, gorde, antolatu eta partekatzeko modu eraginkorrak ezagutu beharko lituzke. Horretarako hainbat web aplikazio erabiltzen ikasiko dugu ikastaroan, ezta?

Bai, ia inori ez dio ihes egiten, garai berrietan, XXI. mendean, irakaslearen papera aldatu behar dela arrazoi askorengatik. Konpetentzia digitalak lortzea ezinbestekoa izango da egungo irakaslearentzat, kontuan izan behar baitugu gure ikasleak natibo digitalak direla. IKTak, beraz, ezinbestekoak dira aldaketa hori lortuko badugu.

Zer-nolako aplikazioak eskaintzen dizkigu Googlek irakaskuntzan aritzeko? Aurkez ditzakezu gain-gainetik, google docs, calendar, reader, sites...?

Googlek oso tresna interesgarriak eskaintzen dizkigu, esan bezala, "hodeian" lan egiteko. Baldintza bakarra Googleko korreo zerbitzuan, Gmailen, kontua zabaltzea izango da. Handik abiatuta, beste tresna horietara guztietara iritsiko gara: docs, calendar, reader, sites... Irudian ikus dezakegun bezala, aplikazio guztiek zerbait ezberdina eskainiko digute (testuak, aurkezpenak eta galdeketak egiteko au-

kerak; agenda antolatzekoa, webgune bat sortzekoa...), baina guztiek izango dute zerbait komunean: konexioa dugun edozein ordenagailu edo gailutik sarbidea, eta partekatzeko aukera. Hau da, dokumentu, aurkezpen, gune, egutegi edo dena delakoa pertsona batekin edo gehiagorekin partekatu ahal izango dugu. Honela, aldi berean zein bakoitza geure aldetik, baina dokumentu beraren gainean, lan egin ahal izango dugu. Honek izugarritzko aukerak ematen dizkigu irakaskuntzan lankideekin, ikasleekin eta ikasleek euren artean talde lanetan aritzeko.



“Edizio bat, bideo bat, ondo eta azkar egiteko, grabaketak ondo egindakoa izan behar du”



Pelaio EIZAGIRRE DE GARATE

PADEKO (HEZIKETARAKO IKUS-ENTZUNEZKO DIGITALEN PRODUKZIOAK) ERREALIZADOREA ETA GERENTEA.
IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA TELEBISTA SAIOAK EGITEN
ESPERIENTZIADUNA

Ikastaroan, Studio bideo programa ezagutzeaz gain, kamera batekin grabazio egokia nola egin daitekeen irakatsiko du Eizagirrek.

Zein dira Pinnacle Studio programaren ezaugarriak?

Programa hau oso erraza da erabiltzeko eta oso “bisuala”. Programarekin editatu, eta bertan dvda egin dezakegu. Eta dvdak oso erraz egiten dira. Aukera ematen dizu argazkiekin eta bideoekin lana egiteko eta bi bideo pista ditu, hau da, bi bideo batera ikus ditzakezu. 14 bertsioarekin hd-ean lana egin dezakezu.

Grabaketa batean laguntzeko eta grabatutakoaren edizioan laguntzeko, eta baita azken emaitza hobetzeko ere, planoaren morfologia ikasi behar da, ezta?

Edizio bat, bideo bat, ondo eta azkar egiteko grabaketak ondo egindakoa izan behar du. Planoaren morfologia baldin badakizu planoak hobeak dira, bai konposaketan, bai iraupenean, bai eman nahi duzun informazioan, eta abar. Adibidez, jendeak ez daki no-

la erabili zooma eta gero edizioan arazo asko izaten dira moztu ezin delako, edo azkarregia delako....

Kamera batekin grabazio egokia egiteko, zer izan behar da lehenik eta behin kontuan?

Informazioa eduki behar duzu eta argi izan zer grabatu nahi duzun. Jasozen dugun informazioarekin grabatu behar dugun gaiaz ondo jabetu behar dugu, eta gero ikusiko dugu nondik eta zer grabatuko dugun.

Klasea praktikoa izango da? Nolako ariketak egingo dituzue?

Edizio-praktikak egingo ditugu. Grabaketa praktikak egiteko ez dugu denborarik, eta gainera beste ikastaro bat izango litzateke. Studioren tresnak ikusiko ditugu, errotuluak, musikak, efektuak,... eta gero. Besteak beste, edizioak (muntaiak) eta dvd bat egindo ditugu menuarekin.



Xabier LERTXUNDI

GIMP: irudiak tratatzeko

“Irudiek zein argazkiek, eguneroko lanetan ez ezik, gure bizitza pertsonalean ere gero eta presentzia handiagoa dute”



Xabier LERTXUNDI

IRAKASLEA

Irudiak hobetzen eta konpon-tzen, irudiekin muntaiak egiten, irudiak moztu eta fondoak aldatzen irakatsiko du Xabier Lertxundik irudiak tratatzeko GIMP programarekin. Photoshoparen oso antzeko programa da GIMP, baina software librea eta doakoa da.

Zer da GIMP programa? Zein dira bere ezaugarriak? Zer nolako tresnak eskaintzen ditu?

GIMP irudiak era profesional batean tratatzeko software librea da. Era erraz batean, software libre honek eskaintzen dizkigun aukera desberdinak erabiliz emaitza ikusgarriak lortuko dira. Ikastaroaren helburu orokorra irudi bati trataera desberdinak ematen ikastea izango da, beti emaitza hobegoko bat lortuz. lik ia izan ez delako Euskal Herrian.

Irudiei ukitu berezi bat emateko, irudiaren ezaugarriak aztertu eta

ezagutu beharko dira lehenik, ezta? Zer da ikasi beharreko ezagutza gutxienekoa?

Irudi bat tratatu aurretik, berarekin “jolasten” hasi baino lehen, zer egin nahi dugun argi jakin behar dugu; hau da, egingo ditugun aldaketek helburu bat izango dute eta horren arabera irudi bakoitzari bere trataera emango diogu.

Irudia gure helburura egokitu beharko da eta horretarako erresoluzioa, irudiaren formatu desberdinak eta bere neurria kontuan hartu beharko dira emaitza egokiena lortzeko.

Irudiaren erabilera gero eta beharrezkoagoa gertatzen da gure eguneroko lanetarako. Zer egin dezakegu GIMP erabiltzen ikasiz gero?

Irudiek zein argazkiek eguneroko lanetan ez ezik gure bizitza pertsonalean ere gero eta presentzia handiagoa dute. Erabiltzen ditugun irudiak gehie-

netan dauden bezala uzten ditugu. Horrelako software batekin irudi horiek beti aldatu, egokitu, zuzendu edo hobetu daitezke: koloreak tratatu, enfoke toke bat eman, behar dugun zerbait txertatu edo kendu..., hau da, gure beharretara moldatzen ikasi.

Ikastaroa praktikoa ala teorikoa izango da? Argazkiak egin eta landuko dituzue bertan?

Ikastaroaren gehiengoa praktikoa izango da. GIMP softwarraren tresna desberdinak ikasteko hainbat ariketa egingo dugu; irudi desberdinekin lan desberdinak egingo dira. Hala ere, irudien zenbait ezaugarri ezagutzeko, teoriak ere bere lekua izango du. Irudi baten aurrean gaudenean ezinbestekoa baita jakitea zer daukagun aurrean, horren arabera, nahi dugun helburu zehatza lortzeko.



“Beste bizitza bat hasi denaren sentrazio eta bizipenek mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera eskainiko digute”

Barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko ditu Urko Arozenaren iritziz. Gure adimena nola eta norantz gidatu irakatsi du, norbere baliabideen ezagutza hobetuz.

Produktibitatea gero eta gehiago baloratzen den jendarte honetan, zuk barne lanketa egitea proposatzen duzu, norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharraz ari zara. Hori lortzeak, ze nolako eragina izango du norbanakoaren bizitzan? Zertan antzemango da? Ze garrantzia du?

Hasteko, inguru mugituegi honen zurrunbilotik ateratzea lortu beharko genuke benetan zer garen, zertan gabiltzan, zernahi dugun, etabar jakiteko. Barne lanketa eskatzen du hasierako puntu honek. Barne lanketa egin ondoren, eta gure benetako kokapenez jabetu ondoren, gure bizitza erabat aldatzen da: gertaera berdinak gure barruan erantzun ezberdina edukiko dute, eragin ezberdina. Beste bizitza bat hasi denaren sentrazio eta bizipenek mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera eskainiko digute, aukera lasaia, sosegatua.

Horrek barruko indar ikaragarria eskainiko digu benetan nahi dugun horretan gure ahalegin hori eskaintzeko, benetako kalitatea duen ahalegina.

Batetik, norbere buruari dagozkion puntuak ukituko dituzue, konfiantza eza, beldurrak, muga estuak, pertzepzio ez zuzenak... eta bestetik maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnez



Urko AROZENA
MUSIKENKO PERKUSIO IRAKASLEA

jardungo zara. Bi horiek al dira bizitza kalitatea hobetzeko faktore garrantzitsuenak?

Bizitza kalitatea hobetzeko faktoreak erabat pertsonalak dira. Argi edukiz gero zer den benetan egitea gustatuko litzaigukeena, benetan amestu dugun bizitza hori, benetan maite ditugun pertsonak, eta gure indar guztiak aipaturiko gustuko eta benetan desiratzen dugun bizitza horren alde jarriz gero, beste bizitza bat edukiko genuke.

Ordena alderantzizkoa da nire ustez: lehenik, gure beldurrak eta mugak gainditu, eta ondoren, norbere edalontzia ongi bete da dakagunean, nahi eta ez hortik ateratzen dena eta ondokoei eskeiniko dieguna, gure onena izango da, horretaz beterik gaudelako, hori gainezka dakagulako.

Horrek dudarik gabe, bizitza kalitatea asko hobetuko liguke, guri eta ondokoei.

Kontrol mentalari buruz unibertsitateko ikerlanen mundu mailako ikerkuntza garrantzitsuenen berri emango da ikastaroan. Aurreratu ditzakezu

zeintzuk diren eta ze puntu garrantzitsu defendatzen duten?

Aurreratu dezakedana honako hau da: goi mailako kirolari gehientsuenek darabiltena bueltan kirol psikologoa. Kirolariak, fisikoki prestatzeaz gain, mentalki ere prestatzen dira egin beharri aurre egiteko, eta emaitza bikainak nabarmentzen dituzten hamaika ikerlan dauzkagu eskura. Zein da honako abantailak lortzeko tresnak gainontzeko gizakiek ez erabiltzeko arrazoia? Gizaki osoak bagara, zergatik ez landu gure errekurtso guztiak? Zergatik arriskatu gure ahalmenen ohiko %10 eza-gun hori bakarrik erabilita?

Bakoitzaren beldurrak, baliabideak eta helburuak desberdinak izan daitezkeela kontuan izanik, ikastaroa nola egituratuko duzu?

Ikastaroaren puntu garrantzitsuenetakoa deritzot azken honi. Galdera zuzena da: nola eskaini orokorki, helburu erabat pertsonalen lanketa suposatuko duen hori?

Erantzuna honakoa duzu: ikastaroan eskainiko dena, gure barru lanketarako teknika bilduma bat da. Ez da dagoen bakarra, baina bai nik ezagutu ditudanetatik eraginkorrena. Teknika hauek apal gisa ulertuko bagenu, gure esku legoke apal hauetan zer eta noiz landu. Ustez ulertzen lagunduko duen beste adibide bat jartzearen, ikastaroan txirrinduan ibiltzen ikasi ondoren, norbere esku dago noiz, nola eta nora joan. Norbanakoak erabakitzen du ikasitako horrekin zer egin.

Hortik aurrera, egokiena, ikastarora etorri eta bertan ikustea!

Teknika bilduma honek nire bizitza aldatu duen gisan, lantzeko prest dagoenaren bizitza aldatuko duenaren uste osoa daukat.

Ibon DE LA CRUZ

Adimen emozionala: irakasleen gizakitasuna

“Jendea ikaragarri harritzen da barruan zer gaitasun dituen konturatzen denean”

Iaz gizakiaren barrualdea landu eta gero, beste urrats bat egingo du, aurtan, Ibon de la Cruzek. Harreman sareetara zuzenduko du begirada. Horretarako, hipnosia eta sedukzioa erabiliko ditu, besteak beste.

Iazko ikastaroan, irakasleen gizakitasuna landu zenuen, parte-hartzaileak norberaren bizitzari begira jarri zenituen, norberaren emozioak nolakoak diren ikusi zenuen. Erraza izan al zen? Edo gogorra da hori egitea?

Oso dibertigarria izan zen, umorearen bidetik iritsi baikinaren emozioetara. Normalean, emozioei buruz hitz egiteko garaian, bide mingarrietatik jotzen da; baina, zurrumbilo pertsonalak baztertu eta, emozio negatiboetan ez, baikik eta positiboetan oinarritzen bagara, emaitzak oso positiboak izaten dira, eta halakoxeak izan ziren iazkoak. Ez dugu psikodramarik egiten, norberaren barruan dauden gaitasun eta balio positiboez hitz egiten dugu, eta jendea ikaragarri harritzen da barruan ze gaitasun dituen konturatzen denean.

Aurtan, gizakiaren barrualdea landu ondoren, beste urrats bat egin nahi duzu, eraginak landu nahi dituzu, harremanak landu nahi dituzu. Geure bizitza erlazioen munduan ongi finkatzea da helburua. Nola egiten da hori?

Horretarako, biadareduki behar dira kontuan: batetik, barrualdera begira dagoena, eta, bestetik, kanpora begira dagoena. Harreman sare batean bizi gara, sozialak gara, baina bizitza inti-



Ibon DE LA CRUZ
PSIKOLOGOA

moa ere badaukagu, eta arlo bateko arauak eta besteak guztiz desberdinak dira: arlo intimoan, maitasuna eta konfiantza sartzen dira; eta arlo sozialean, botereak eta legeek agintzen dute. Gizarte legeak ikasi eta erabiltzen jakin beharra dago, eta gure inguruko botere egoera nola dagoen ikusi behar dugu, mendeko egoera batean gaudela jabetu behar dugu, botere eta lege horiek mina egiteko ez, baikik eta ongia egiteko erabiltzen ikasteko.

Nola lor dezakegu besteak bere onena ateratzea?

Normalean jendeak boterea ez du min egiteko erabiltzen, ongia egiteko baikik, jende gehienak helburu onak baititu. Baina nola lor dezakegu besteak bere onena ateratzea, edo nola lor dezakegu jendeak gauza positiboak egitea, indarkeria erabili gabe? Bada, sedukzioaren bidez. Eta horixe landuko dugu ikastaroan: sedukzioaren bidez besteak bere barnean duen altxorra ateratzen ikastea; izan ere, guztiok

daukagu altxor bat barruan, guztiok daukagu sobera adimen eta gaitasun gure barruan.

Teknika harrigarriak erabiliko dituzu horretarako, ezta?

Bai, hipnosia eta autohipnosia erabiliko ditugu. Inkontzientera iritsiko gara hipnosiaren bidez, oso ondo funtzionatzen duen teknika baita, eta geure burua hipnotizatzen ere ikasiko dugu, edozeinek bere buruarekin erabil dezakeen teknika baita; emozioak arriskurik gabe aldatzen laguntzen digu, eta oso emaitza onak eta azkarrak ematen ditu. Autohipnosiaren bidez, emozio positiboak askatzen ikasiko dute parte-hartzaileek.

Zer da autohipnosia?

Hainbat kontzientzia maila ditugu, eta maila horietan batetik bestera ibiliko gara, beti ere norberak kontrola ditzakeen mailetan barrena. Hau da, parte-hartzaileak ez du bere buruaren kontrola galduko, baina inkontzienteko ahalmenak askatzen ikasiko du, barruan dituen eta ezagutzen ez dituen gaitasunak eta adimena askatzen ikasiko du. Eta euskaraz egingo dugu hori.

Hori guztia lanean nola erabil dezake hezitzaileak?

Irakasle bakoitzari eta parte hartuko duen pertsona bakoitzari bere nortasuna sendotzeko balio izango dio ikastaroak, barruan dauzkan gaitasunak eta adimena ezagutzen lagunduko dio, eta, baliabide horiek badauzkala jakinda, bizitzan eta eskolan erabiltzea izango da kontua, erlazioak hobetzen ikastea, zauriak zaintzea, nortasuna sendotzea, lotsa gaintzea...

EHAZE: Antzerki irakasle jantziak, antzerkiaren balioak hedatzeko



“Irakasleek antzerkigintzaren magia transmititzen jakin behar dute”

Antzerki irakasleak trebatzeko eta berriak sortzeko helburuarekin, ikastaroa emango du EHAZEK, antzerkiaren balioak hedatzeko. Ikastaroa emango duten irakasleek esperientzia handia dute mundu horretan. Hauek dira: Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga eta Asier Sota. Bakoitzak bere irakaskuntzako bideak erakutsiko ditu, era teoriko eta praktikoa batean.

Antzerki irakasleak prestatzeari ekin diozue aurten. Euskaraz antzerkia irakatsiko duten profesionalen falta sumatu duzue?

EHAZEK euskal gizartea antzerkizalea izatea lortu nahi du. Horregatik, dituen balioak gizartera zabaltzea eta, balio horien eraginez, geurea dugun hizkuntza naturalean hausnartzea, ikastea eta gozatzea du helburu. Zaletasun hori indartzen joan dadin, zale di-

ren irakasleak behar ditu antzerkiak. Eta irakasle horiek prestatzeari ekin nahi dio EHAZEK. Zergatik? Falta sumatu baino areago, oraindano antzerki irakasle profesionalik ia izan ez delako Euskal Herrian.

Zein dira antzerkigintzatik jasotzeko altxorrak?

Antzerkigintzak badu magia bat bere baitan, antzerkigintza probatzen duen jende gehientsuenari antzerkiarekiko betiko lotura berezi bat sortzen zaio. Antzerkigintzak geure burua eza-gutzeko eta geure buruaz gozatzeko parada ematen digu, ez da zalantzarik horretaz; baina, gainera, jende multzo baten bizi kalitatea hobetzeko ekintzataratara bideratuko gaitu, barrua irriz pozteko balio baitezake, edota gai sozialei astinduak emateko. Ez al da nahikoa altxor? Edota nahikoa baino gehiago, aberatsa?

Antzerkigintza eta antzerkizaletasuna sustatzeko

garia, zer rol betetzen dute irakasleek?

Irakasleek antzerkigintzaren magia hori transmititzen jakin behar dute. Irakasleek antzerkigintzaren ateak irekitzen lagundu behar diete ikasleei, eta baita beren bidea eraikitzen ere. Horretarako, hezkuntzako beste arlo guztietan bezala, irakasleak profesionala izan behar du bere arloan, baina baita irakaskuntzan ere. Gure herriko antzerki irakasleak sormena lantzeratzen eta bere gaitasunak jorratzera eta hobetzera bideratu behar ditu ikasleak, haur, gazte nahiz helduak, euskaraz ari diren bitartean.

Antzerkia euskaraz irakasteko zenbait metodologia ezagutaraziko dituzuela diozue. Esango diguzue zein diren metodologia horiek?

Euskaldunok ez dugu oraindik ere geure antzerki metodori ezaugarri propio finkorik. Horixe da gure errealitatea. Horretan dihardute aktore eta oholtza gaineko profesional batzuek gaur egun, eta gizartean nabarmena da bide onetik abiatu direla. Hala ere, irakaskuntzari dagokionez, jendeak orain arte borondate hutsez jardun du antzerkia euskaraz irakasten. Euskaraz sortutako antzerkia nola irakatsi, hori lantzea da EHAZEren helburuetako bat. Baina antzerki irakasle guztien artean jorratu beharrekoa da bide hori, eta guk, ikastaroaren bidez, bide hori bilatzeari ekin nahi diogu.

Ikastaroa nola egituratuko duzue?

Prozesua aurkezteaz gain, partaideek dituzten egoeretatik edo kasuetatik abiatuta, teoria hori praktikan jartzen saiatuko gara.



Ixabel MILLET: Lumatik ahora

“Haurrek haiekin momentu atsegin,
miragarri edo hunkigarri bat konpartitzea estimatzen dute”



Ixabel MILLET

KONTALARIA ETA IDAZLEA

Idatzirik dagoen ipuin batetik abiatu, ipuin hori kontatzeko eman behar diren urratsak landuko ditu Ixabel Millet ipuin kontalari eta idazleak ikastaroan. Testua era erraz batean prestatu eta egokitzeko teknikak ezagutaraziko ditu.

Idatzitako ipuin guztiak egokiak al dira ahoz kontatzeko? Kontatu nahi dugun ipuina aukeratzeko, zer eduki behar dugu kontuan?

Egia esan, eta ohitura dugun bezala, idatzita dagoena irakurri egiten dugu, eta idazten duenak idatzitakoa irakurle batek hartu eta leituko duela pentsatzen du; horrela sortzen da literatura. Literatura hitza erabiltzen dugunean, “literatura idatzia” esan nahi dugu, elipse batekin “idatzia” janaz. Barruan, eleberririk, poesiak, etb, eta ipuinak aurkituko ditugu, ipuin idatziak.

Bestalde, bada beste literatura mota bat, “ahozko literatura”, eta kasu hone-

tan ez da jaten hitz bat edo bertze, osoa janda dago, existituko ez balitz bezala tratatzen baita gehienetan. Bertan, ahozko literaturan, elezaharrak, bertsoak, etb, eta jakina ipuinak topatuko ditugu, ahozko ipuinak.

Beraz, ipuin bat aukeratzeko, ipuin idatzi bat edo ahozko ipuin bat den jakin beharko dugu; horretarako, klabe batzuk daude kontutan hartu behar direnak eta ikastaroan ikusiko ditugunak.

Ipuin garaikide edo berriak eta ipuin klasikoak kontatzeko teknika berdina da? Ala teknika ipuin bakoitzera egokitu behar dugu?

Ipuinak kontatzeko teknikak anitzak dira. Baina, kasu horretan, ipuin berriak vs ipuin klasikoak kasuan, ipuin berriak idatzirik daudela kontuan hartu beharko dugu; ipuin klasikoak, jasoak izan zirenez, kontatzen ziren bezala jaso ohi ziren; beraz, gehienetan, ahozko forma gorde egin dute. Horregatik prestaketa gutxiago behar izaten dugu, beti ere hartzen dugun bertsioren arabera.

Laburbilduz, zera esan dezakegu: idatzita dagoena irakurtzeko da, eta gainera haurrentzako ipuinetan, ilustrazioak izaten dituzte, beraz, begiratu behar den zerbait.

Ikastaroan, batekin zein bestearekin arin aritzen ikasiko dugu, prestaketa gutxiarekin ipuina kontatzeko prest izaten.

Gorputzak eta gorputz espresioak ze garrantzi dute ipuin baten kontaketan?

Komunikazioan duten garrantzi berbera, ez gehiago eta ez gutxiago.

Hala ere, ipuinak kontatzea edo an-

tzetzea ez dela gauza bera azpimarratu nahiko nuke. Kontalariok ipuinak kontatu egiten ditugu, eta antzerki taldeek antzeztu, antzezlan bat bihurtuz.

Kontalariok, ipuinak kontatzeko, tresna bat edo beste hartuko dugu, baina oinarrian testuan dago (eta ez antzezlan), eta ahotsa, ahotsaren adierazpenean. Gero, bakoitza mundu bat denez, espresibitate ezberdinak izaten ditugu, bakoitzak berea; mugimendu gehiago edo gutxiago, zutik kontatu edo eserita, etab.

Orain, testua buruan badugu ere, garenarekin kontatuko dugu ipuina, beraz kontuan hartu beharko ditugu: ahotsa, gorputza, bihotza (sentimenduak) eta, horretan sinesten bada, ari ma ere bai.

Zer da haurrek gehien estimatzen dutena ipuin bat kontatzen dietenean?

Ipuinen eta haurren arteko lotura soila eta zuzena deigarri egiten zait. Ipuinei buruz zera esaten da: “Ipuinak, haurrak lokarraz eta helduak esnatzeko dira”, eta badirudi esaldiaren bigarren parte ahaztu dugula, eta ipuin hitza aipatzean hurrez soilik ari garela pentsatzen.

Helduentzako ipuin asko eta ederak daude, idatzirik eta ahozko tradizioz datozenak, kontalari batzuk kontatzen ibiltzen garenok.

Eta zure galderari erantzunez, nire uste apalean, haurrek gehien estimatzen dutena ipuin bat kontatzen diegunean, helduek bezala, haiekin momentu atsegin, miragarri edo hunkigarri bat konpartitzea dela uste dut, zuri edo niri gustatzen zaigun bezala.

Nerea MENDIZABAL

Ez dut zigortu nahi

“Eraginkorrena haurrak jokaera ‘desegokiarekin’ zer esan nahi diogun ulertzea da”



Nerea MENDIZABAL

PSIKOPEDAGOGOA

Zigorraren, xantaiaren eta mehatxuen aurrean, beste aukera batzuk badaudela erakutsiko du Nerea Mendizabal psikopedagogoak ikastaro honetan.

Luzaroan, hezitzaileek eta gurasoek ez dute zalantzarik izan haurra zigortzerakoan. Orain, zalantzan jartzen da zigorra, ezta?

Bai, askotariko heziketa ereduak ari gara ezagutzen, eta ikusi dugu autoritarismoak (“nik esaten dudalako, eta kito, bestela...”) edo dena uzteko jorak (“dena aske duzu, eta egin nahi duzuna”) zer eragin izan dituzten haurraren, lortu nahi dugun jokaeran eta elkarrekin eraikitzen goazen harremanean. Eta, beraz, zigorrak zalantzan jartzera eraman gaituzte.

Zuk diozun bezala, igeri egiten, sukaldean edo gidatzen ikastea normaltzat hartzen duzu, baina seme-alabekin komunikatzen ez

dugu ikasten. Hori, ikas al daiteke? Nola egiten da?

Benoa, komunikatzen ikasi ez; izan ere, modu batera edo bestera, komunikazioa etengabea da, haurdunalditik gurasoek komunikatu egiten baikara haurrekin, eta haurra ere bai gurekin. Ikas dezakeguna elkarrengana gerturatuko gaituen komunikazioa da, ez bakarrik seme-alabekin harremanak sendotzeko, baita gainerako harremanak sendotzeko ere.

Gehienok gure harremanen kalitatea hobetzeko gaitasunak eduki nahi ditugu. Tamalez, lehiatzera, epaitzera, eskatzera eta diagnostikatzerako bideratutako eredu hezitzaileekin eta patroiekin hezi gaituzte gehienok, oso gaztetatik; aurreiritziak erabiltzera eta giza harremanetan “ondo” edo “gaizki” dagoena adieraztera bideratu izan gaituzte, moral aldetik. Horretaz ohartzen eta baliabideak eskuratzen ikas dezakegu, guri gertatzen zaiguna adierazteko eta besteari gertatzen zaiona entzuten ikasteko.

Marshall Rosembergen ‘komunikazio ez bortitzaren eredu’ aurkeztuko duzu ikastaroan. Azalduko diguzu, labur-labur, zer dioen eredu horrek?

Marshall Rosembergek eraiki duen ereduaren helburua ez da jendearen izaera edo gurea aldatzea, ez eta beste-enjokaerak eta gureak aldatzea ere, gure bidea lortzeko; zintzotasunean eta enpatian oinarritutako erlazioak eraikitzean datza; horrela, lehenago edo geroago, kontuan hartuko dira denon beharrak.

Oso prozesu konkretua da, edozer gauza adierazteko eta entzuteko guretzat oso baliagarriak izango diren pau-

so zehatzak ditu. Indarrak berreskuratzen, elkarren arteko konexioa lantzen eta bakea lortzen lagunduko digu horrek.

Zigorraren, xantaiaren eta mehatxuaren alternatibarik ba al dago? Aipatuko diguzu horietakoren bat?

Eraginkorrena haurrak jokaera “desegokiarekin” zer esan nahi digun ulertzea da, eta, horretarako, prozesuak halako arrasto batzuk ematen dizkigu: beharrak beteta edo bete gabe izatea da jokaera edo emozio guztien eragilea. Behar horiek identifikatu eta ezagutu gero, aukera onena kontuan hartuko duen modua diseinatu gero, jokaera edo emozio horiek ez dute modu horretan azaldu beharrik izango.

Ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da. Nola egituratuko dituzu eskolak?

Prozesua aurkezteaz gain, partaideek dituzten egoeretatik edo kasuetatik abiatuta, teoria hori praktikan jartzen saiatuko gara.



Ahotsakstudio Jendaurrean hitz egiten ikasi

“Gorputzaren bidez askotan guk nahi ez dugun informazioa ematen dugu”



Haizea MUÑOZ

AHOTSAKSTUDIOKO AHOTS TEKNIKARIA

Irakasleei jendaurrean —klastroetan nahiz gurasoen aurrean— segurtasunez hitz egiteko baliabideak eskaintzeaz gain, Ahotsakstudiok ikasleekin ahozkotasuna lantzeko tresnak eskaini nahi dizkie irakasleei, jendurreko aurkezpenak garai batean izan zuten garrantzia berreskuratzen ari baitira. Haizea Muñozek emango du beldur eszenikoa saihesteko ikastaroa.

Jendaurrean hitz egiteko garaian, oro har, ze kezka, beldur edo arazo izaten dituzte irakasleek?

Irakasleen kasuan, arazoa ez da etortzen, normalean, jendaurrean azaldu behar duten gaitik, bere gaia bai baitaki eta menderatzen baitu. Norberaren izaera eta jarrera izaten dira kezka edo arazo nagusiak, oso urduri jartzen direla jendaurrean hitz egitean, ez zehazki ikasleen aurrean hitz egitean, baizik eta aparte, irakasleen aurrean edo guraso-

en aurrean hitz egitean, klastroan edo bileretan. Beldur eszenikoa izaten da irakasleei jendaurrean hitz egitean arazo gehien eragiten diena, nahiz eta jakin badakien esan behar duen hori interesgarria dela.

Jendaurrean, klastroetan, eskola kontseiluetan eta gurasoekin bileretan hitz egiteko beldur eszeniko horri aurre egiten ikasteko lehen pausoa zein izango litzateke?

Beldur eszenikoa gainditzeko lehen pausoa ariketak egitea da. Egoera imajinatzea eta ispilu aurrean ariketak egitea, jendaurrean hizketan ari garela irudikatzea. Ariketa horietan, esan behar dugunaz gain, gorputza, eskuen mugimendua eta begirada izan behar ditugu kontuan. Praktikak egin behar dira lehen egunetik, eta zer sentitzen dugun ikusiko dugun, angustia eragiten ote digun jendaurrean hitz egiteak, edo urduritasuna edo zer. Eta zer sentitzen dugun jakinda, kontrolatu ahal izango dugu egoera, arnasketaren bidez, ariketa teknikoen bidez...Eta behin dena bukatu ondoren, lasaitu egingo gara.

Ahots hizkuntzaz gain, gorputz hizkuntza ere landuko duzue. Gorputzaren bidez asko esaten dugu? Ba al dakigu gorputz hizkuntza egoki erabiltzen?

Egoera arruntetan bai, badakigu gorputz hizkuntza egoki erabiltzen. Gorputzaren bidez informazio handia ematen dugu, askotan guk ez duguna nahi ere transmititzen dugu, urduritasuna edo intseguritatea, adibidez. Aho-tsa bezala, gorputz hizkuntza ere ariketen bidez landu liteke, egoera desberdinak irudikatuz, ez baita gauza bera os-

pakizun batean hitz egitea, edo klastro batean, edo gurasoen aurrean, edo mitin batean.

Ahots eta gorputz hizkuntzaz gain, irakurketa eta inprobisazioa ere landu egiten dira. Gidoi bat edukitzea, eta gidoi horretatik irteten jakitea garrantzitsuak baitira, jendaurrean aritzeko.

Irakasleen lana izan ohi da, era berean, ikasleei modu praktikoan euren lan aurkezpenetan edo ahozko azterketetan laguntza ematea. Zer izan behar du kontuan lan horretan ari den irakasleak?

Berriro gero eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen ikasleek jendaurrean egiten dituzten aurkezpenek, zorionez. Eta hori ikasleekin eta irakasleekin landu egiten dugu. Programazio bat egin behar da, lanen aurkezpenak modu egokian nola egin lantzeko; berriro sortzen ari baita ahozkotasunaren eta aurkezpenak egitearen garrantzia, denbora luzean apartaturik egon ondoren. Unibertsitateek bultzaturik ari dira ikastetxeetan ere aurkezpenak lantzen, ikasleek jakin behar baitute gai bat jendaurrean defenditzen.

Ikastaroan landuko dugu, eta hurrengo ikasturteari begira era garrantzi handia izango du, ikasleek aurkezpenak jendaurrean egiteko gaitasuna lantzea; gaia eman, pautak eman, ariketa orokor batzuk egin, eta gaia azaltzen ikas dezaten. Debate formako eskema landu nahi dugu, bitalde bereizi eta dialektika bultzatu gai baten inguruan, ea nork defendatzen duen gai hori ondoren. Unibertsitatera begira, garrantzi berezia hartzen ari den korrantea da ikasleen ahozkotasuna lantze hau, seguritatea eta gaiarekiko kontrola ere lantzen baitira.

GAUTENA

Autismoaren azalpena ikuspegi praktikotik

“Gizartean ahalik eta hobekien barnera daitezen lortzea dugu xede”



Jesus GARCIA

PSIKOLOGOA

Gipuzkoako Autismo Elkarteak autismoaren inguruko azalpenak emango ditu ikastaroan, ikuspegi praktikotik. Zehazki, familiei, ikasleei eta autismoarekin zerikusia duten profesionalei eta, oro har, gizarte osoari autismoa gaur egun zer egoeratan dagoen azaltzea du helburu Gautenak.

Autismoaren gaur egungo egoera gizarteari azaltzea duzue helburu ikastaro honetan. Diagnostikorako irizpideak aldatu egin dira, eta profesionalek sakonago ezagutzen dute gaia. Asko aldatu al da egoera azken urteotan?

Oro har, sentsibiltate handiagoa dagoela esan daiteke, eta hiru arrazoi-oren ondorio izan liteke hori: zenbaitek diagnostikorako erabiltzen diren tresnen zehaztasun maila handiagoa dela argudiatzen du; beste batzuek, aldiz, Autismoaren Espektroko Nahasteen (AEN) inguruan jarduten duten profesionalen prestakuntza hobea dela dio; eta, azkenik, beste zenbaitek dio AEN-en eragina benetan hazi egin dela.



Jara LARREATEGI

PSIKOLOGOA

Ikastaroa hiru ataletan bereiziko duzue: lehenengoan, autismoaren definizioaz jardungo zarete. Laburpentxo bat egin zenezakete?

Nahaste Autista, Garapenaren Nahaste Orokortua da, eta hiru ezaugarri nagusi ditu: harremanetarako zailtasun kualitatiboa, komunikazio mailako nahaste kualitatiboa eta jokaera patroia, interes eta ekintza mugatu, errepikakor eta estereotipatuaren presentzia.?

Bigarrenengoan, tratamenduaz hitz egingo duzue, garatzeko esparru orokorrez, erreferentziazko programez, lan dinamikez... Aurrerapen bat egin dezakezue?

Tratamenduaren arloa lantzerakoan, diagnostikoan agertzen diren zailtasunekin lotu nahi dugu gaia; hau da, harremana, komunikazioa, eta jokabide eta interes mugatuak. Horretarako, psikologiako hainbat proposamen egin dira, formatu moduan, hala nola Hanen programa, PECS, Teacch, RDI eta abar. *Hik Hasi*ko ikastaro honetan, gure aurkezpena komunikatzeko gaitasunetan oinarrituko da, eta, hortik abiatuta, gainerako zailtasunei erantzuten saiatuko gara, ikuspegi orokor bat hartuta, betiere; atea irekita utziko dugu, beste uneren batean gehiago sa-



Inge LAZKOZ

PSIKOLOGOA

kontzeko. Foro honetako gure bigarren parte-hartzea izango da hau, eta horrelako gai bat ez da inoiz agortzen; ziur aurrerago ere aukera gehiago izango ditugula gehiago zehazteko.

Gautenaren lanari dagokionez, zein dira erakundearen helburuak eta zerbitzuak?

Gipuzkoako Autismo Elkarteak 1978an sortu zen, pareko arazoak ziztuzten familia batzuen ekimenez. Beraien ziztuzten zailtasunak zirela eta, gizartea sentibera bihurtzea eta beharrezkoak ziztuzten zerbitzuak ezartzea izan zituzten helburu nagusi.

Gautenako zerbitzuek laguntza behar duten pertsonak artatu nahi dituzte, erabateko laguntza emanez bizitzaren osoan, bai alor klinikoan, bai hezikuntzaren esparruan, bai aisialdian, bai lanean eta bai etxebizitzaren arloan, eta pertsona horiek eta horien senideek bizi kalitate ona izan dezatela lortu nahi dute.

Baliatzen ditugun laguntza programak pertsonalizatuak dira, eta parte-hartzaileekin edo horien ordezkariekin hitzartzen ditugu. Gizartean ahalik eta hobekien barnera daitezen lortzea dugu xede.

Joxe AMIAMA

Familia eta irakasleriaren arteko harremanak

“Eskolak eta familiak helburu bera daukate ume/gazteentzat, eta horri buruz asko hitz egin behar da”



Joxe AMIAMA

EHUKO IRAKASLEA

Familia eta irakasleriaren arteko elkarlana hobetzeko hausnarketak eta hobekuntzak planteatzen ditu EHUKo irakasleak, erlaziozko ereduak birpentsatzeko eta harremanak hobetzeko gako batzuk ezaguturaziz. Horietako bat gaur egungo familia ereduaren aniztasunari buruz hausnartzetik datorrela dio.

Eskola eta familia “barku berean” joan behar direla entzuten dugu maiz. Zergatik? Zein izan behar da bi sistemen helburua?

Garai batean irakaslearen funtzioa edukietan oinarritzen zen. Berak bazez argi eta garbi zer egin behar zuen eta nola. Horregatik, ikasle eta familiaren papera pasiboagoa zen. Baina, gaur egun, eskola aldatu da eta bere funtzioa (legeak esana) pertsona, hainbat esparrutan, konpetente izatea da. Planteamendu honetan ikasleek aktiboagoak izan behar dute, eta familiek ere bai.

Zorionez, helburu hori familiek ere nahi dute. Familiak seme-alaba ardurasua izatea, arazoak bideratzeko gaitasunarekin eta besteekin harreman baikorrek izatea nahi du.

Aurrera al ditzakezu harreman hori bideratzeko pistaren batzuk?

Azkar botata hemen daude pista batzuk:

Lehenik: bai irakasleria, baita familia ere, bi sistema ezberdin direla baloratzea, eta batez ere, behin baino gehiagotan gatazkak sortuko direla onartzea. Bakoitzak bere arauak, beharrak... dauzka, eta batzuetan aurka daude (adibidez eskolako ordutegian). Baita ere, nola ikusten duten umea/gaztea. Toki batean “ikaslea” bezala eta bestean “seme-alaba” bezala, eta bi rol horiek desberdinak dira (atentzioa, emozioak, espektatibak...)

Bigarrenik: helburu bera daukatela ume/gazteentzat. Eta horretaz asko hitz egin behar da bakoitzak bere arloetan zer egin dezakeen jakiteko. Beste sistema inbaditu gabe.

Eta azkenik: eskolak errebisio bat egin behar du bere errekurtsoei buruz. (praktikan zein diren Organo Gorenaren funtzioak, nola antolatzen dituzten kurtso hasierako bilerak, noiz eta zertarako biltzen diren familiekin...)

Eskolek kontuan izaten al dute gaur egun familien eredu anitza?

Gehienok ahoz familien aniztasuna onartzen dugu, adibidez, familia bananduak edo monoparentalak ez ditugu “gaizki” ikusten. Berriz, gure eskoletako praktiketan familia nuklearrarekin (bikote heterosexual bat eta seme-alabak) oinarritzen gara. Adibidez, aita beste etxe batean bizi bada, zuzenean jasotzen al du bere alabaren informa-

zioa?; edo curriculum aldetik gelako errealitate guztiak kontuan hartzen al dira zuhaitz genealogikoak egiten direnean?

“Familien partaidetza eskolan” gaia landuko duzu ikastaroan. Ze partaidetza mota dira nabarmenenak?

Gaur egungo erreferente handi bat Epstein da. Emakume honek familien partaidetza sei multzotan antolatzen du. Marko teoriko hau oso funtzionala da edozein eskolak bere diagnostikoa egiteko. Gainera, askotan, eskolak pentsatzen du partaidetza gutxi daukela eta ez da egia. Balorazio hobekak ateratzen dira.

Zentroetan, familien partaidetza, batez ere, Organo Gorenarekin (edo antzekoarekin) lotzen da. Berriz, Epsteinentzat kurtso hasierako bilerara joatea edo inauterietan eskolara umeei ikustera hurbiltzea ere partaidetza da.

Begirada hau askoz aberatsagoa da; pista batzuk ematen ditu harreman hauek hobetzeko; eta bere eragina Organo Gorenean izateko.

Eta alderantziz, eskolak nola aurkezten dira familien aurrean?


Ikerketetan garbi azaltzen da harreman aldetik boterea irakasleak daukela. Oro har, irakasleak noiz bildu, zein gai landu, zer eskatu familiari... erabakitzen du.

Edozein harremanetan boterea (lehenengo hitza) nor daukan aztertu behar da. Horregatik niretzat irakaslearen aurkezpena familia edo talde baten aurrean oso garrantzitsua da. Segun nolakoa den abiapuntu hori familiaren erantzuna desberdina izango da. Eta honetarako komunikazio estrategiak menperatzea oinarritzkoa da.

Alvaro BEÑARAN

2-3 urteko haurren psikomotrizitate praktika

“Bizitzaren hasieratik haurrak dakarren bizitzeko energia eta indarrak errespetatu behar ditugu”



Alvaro BEÑARAN

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOAN LIZENTZIADUNA

Psikomotrizista bere burua asko landu duen pertsona bat denez, era horretan badaki zeinen inportantea den haurra errespetatzea eta hari seguritatea ematea. Horixe da psikomotrizistaren lana: haurraren gaitasunean konfiantza jartzea.

Psikomotrizitate praktika, nola, zergatik eta zertarako da eraginkorra eta baliagarria?

Haurraren eboluzioan funtsezkoa da sinbolizatze gaitasuna garatzea: haurrari aukera eman behar zaio bere barrukoa, bizitzan izandako esperientziak eta harremanak irudikatze gortuzaren bitartez, ekintzaren bitartez, jolasaren eta zenbait irudiren bitartez.

Psikomotrizitate praktikan saiatzen da aukera hori ematen haurrari: sententzioetatik, sentimenduak eta emozioak bizi, pentsamendura iristen. Gizakia hiru aspektu hauen integrazioa helburua du. Bainan dena bere garaian eta behartu gabe, haurrari protagonis-

moa utziz, seguritate marko argi baten barruan.

Eskola munduan, psikomotrizitate praktikak haurrari eskaintzen dio bere pertsona osotasunean azaltzea. Bere gaitasunetan kokatu eta ez bere zailtasunetan. Bere inziatiba eta gogoari eutsi (ez “azalean” nahi duena egin baizik eta benetazko gogoak aurkitu bere baitan). Eta guzti hau plazeraren bitartez: egitearen plazer, eragitearen plazer, mugitzearen plazer, jolastearen plazer, sinbolizatzearen plazer, hitz egitearen plazer, entzutearen plazer, pentsatzearen plazer. Izatearen plazer.

Zeintzuk dira psikomotrizitate saio baten helburuak?

Haurrak heldutasun ibilbidea egitea, sententzioetatik pentsamendura, sinbolizazio maila gero eta garatuagoetan aritzen.

Hasieran, haurraren egiteko, izateko gogoak sortu abiapuntua du. Horretarako psikomotrizistaren jarrerak oinarrikoak dira: haurraren inziatiba eta autonomia errespetatzea; entzuteko gaitasuna eta enpatia izatea; seguritate legearen erreferentia izatea.

Gelaren diseinua, espazioen eta denboren antolaketa eta erabiltzen diren materialak izango dira psikomotrizistak erabiltzen dituen baliabideak bere jarrerak azaltzeko. Horrekin guztia markoa eraikiko du, seguritate markoa, eta horrela konfiantzazko harremana eta ingurua osatuko ditu.

Hasierako konfiantza eta seguritate hauetan oinarritua, haurra egiteko gogoaren poderioz psikomotrizitate gelan egiten eta eragiten hasiko da. Egite honetan aurkituko ditu bere barruan

dituen plazerak, gogoak, beldurrak, mugak, etab.

Psikomotrizistak eta berak sortutako markoak ematen dioten seguritateaz plazeran bizi ahal izango ditu esperientzia horiek. Plazerak bere buruaren batasuna eta osotasuna eragingo ditu. Bere buruaren oinarria eraikiko du plazer horrek.

Barruko plazer honetatik abiatuz, barruko identitate honetatik abiatuz, haurrak sortuko ditu irudiak eta sinbolizazio maila desberdinetan arituko da. Horrela bere esperientzia horiek integratuko ditu irudi horiekin bere pertsonaren batasuna lortzeko.

Beraz, izatearen plazerak, egitearen plazerak norebrak bere burua sendotuko du, eta pentsamendura eta komunikaziora irekiko da haurra, hazte eta autonomia bidea zabaltzen.

Psikomotrizitate praktikaren gakoa haurrari bere garapenaren protagonista izateko espazioa ematea da, ezta?

Psikomotrizitate praktika “ez zuzendutako” pedagogien artean kokatu dezakegu. Hau da, haurrarekin ez dugu zuzendutako ariketen bitartez lan egiten.

Zergatik? Konfiantza dugulako haurraren gaitasunetan. Haur txikiak, uzten bazaio, bizi nahi du, ezagutu nahi du, handitu nahi du, esperimendu nahi du, mugitu nahi du, jolastu nahi du. Hezkuntzako profesionalok egin behar duguna hau da: ondo aztertu zer nolako ingurugiroak antolatu haurrak aukera hori edukitzeko, zer nolako jarrerak eta harremanak sortu behar ditugun haurra bere prozesuaren protagonista izateko.

Haurrak ez badu egiten handitzearen prozesua bere barrutik abiatuz, heteronomia dinamika batean murgilduko da, dependentzian.

Bizitzaren hasieratik haurrak dakarren bizitzeko energia eta indarrak errespetatu behar ditugu. Ez ditugu murriztu behar, baina bai bideratu. Honetan datza hezkuntza: nola eman bide energia horri sozializazio prozesu baten barruan.

Psikomotrizitate praktikan haurrari ematen zaion lehenengo mezua hau da: “gela honetan zu izan zaitezke zaren bezalakoa. Hemen zure burua azaldu dezakezu”. Gero gure lana izango da nola lagundu haurrari heldutasun eta autonomia bidean aritzen.

Eta haurra bere prozesuaren protagonista izateko ezinbesteko abiapuntua da bere gorputzaren eta mugimenduaren plazera bizitzea. Horregatik gure geletan autonomian mugitzeko eta eragiteko baliabideak egon behar dira. Plazerezko sentazioak bizitzen direnean, norberarengandik sortu den ekintzetan oinarrituak, orduan haurrak sustraitu egiten du bere garapen prozesua bere baitan. Barrukoa eta kanpokoa aurkituko dira, eta elkarriketatuko dute. Kanpokoa ez du estaliko barrukoa.

Gaur egun eskoletan kontuan izaten al da haurrak zer nolako baldintzak behar dituen 2-3 urte dituenen? Zer egin dezake eskolak adin horrek duen garrantzia kontuan hartzeko?

Lehehengoa: 2-3 urteko haurrak ez du eskola behar (bere ingurua egokia baldin bada). Gizarteak du eskolaren beharra.

Bigarrena: hori dela eta baldintza egokienak sortu behar ditugu haurraren eskolarizazioa ahal duen seguruen izateko.

Hirugarrena: egokitzapen sistema bat sortu behar da eskola bakoitzean, eskolatzearen hasieran, 2 urteko haurren larritasunak eta beldurrak jaisteko garai horretan, beste helburuen artean.

Laugarrena: adin honetan geroko sozializazioaren oinarriak eraikitzen ari dira, baina haurrak ez daude batere prest taldeka funtzionatzeko. Horregatik kopuruak egokiak izan behar dira: 12 haur baino gehiago ez.

Bostgarrena: espazio eta material egokiak egon behar dira. Txikiak izateak ez du esan nahi leku txikiak nahikoak direla. Ondo aztertu behar da zer nolako objektuak erabili eta nola eta noiz eskaini. Ordutegiaren antolaketa. Erritmoak (seguritatea-autonomia-seguri-

tatea-autonomia...).

Seigarrena: adin honetako haurrekin dagoen hezitzaileak ondo ezagutu behar ditu zeintzuk diren haur hauen premiak eta interesak bere bizitzan eta hortik abiatu.

Zazpigarrena: banaketa dugu horietako ardatz nagusi bat: haurrari aukera eman behar zaio berak mendera dezan prozesu hori. Hezitzailearen jarduerak asko zaindu behar dira honetan.

Zortzigarrena: hezitzaileen formazioa adin txikietan pentsatzen duguna baino askoz inportanteagoa da. Haur txikiak gogor eragiten dute hezitzailearen pertsonarengan eta emozioetan. Hezitzaileak jakin behar du hori guztia jasotzen eta komunikazioa eta jolasa bihurtzen, eta ez proiektatzen berea haurrengan.

Bederatzigarrena: familiekin harremana funtsezkoa da. Elkarlana. Norberaren identitatea eta lekua errespetatuz.

Etab. etab.

Psikomotrizitateak nola laguntzen du 2-3 urteko haurrak bere buruagan segurtasuna eduki dezan?

Psikomotrizista bere burua asko landu duen pertsona bat delako: horre-



la badaki zeinen inportantea den haurra errespetatzea eta hari seguritatea ematea.

Bere jarren bitartez haurrak jakin behar du gela horretan ez dagoela arriskurik, inor ez duela behartuko, ez duela erreprimituko. Identitate argi eta sendo bat duen pertsona bat aurkituko du, eta horrek aukera emango dio bere identitatea eraikitzen.

Hor aurkituko du "bai" eta "ez" esaten dakien heldu bat. Haurraren pertsonari beti "bai" esaten diona. Aukera ematen duen legea, ez murrizten duena, defendatzen duen heldua.

Horrela haurra zentratuko da bere esperientzietan, lasaitasunean. Denbora edukiko du aurrera eta atzera egiteko, errepikatzeko, "gaizki" eta "ondo" egiteko juiziorik gabe. Denbora edukiko du bere pertsonaz arduratzeko. Bere buruaren oinarriak eraikitzeko denbora. Horrela gero joango da mundura seguritatean, identitate batekin.

Psikomotrizitate gelan haurrak egin ditzake jolas asko, ekintza asko, balio-garriak direnak bere bizitzan dituen beldurrak, inseguritateak, gaizkiegoteak gainditzeko.

Adibide bat jarriko dut: gorago aipatu dut banaketak duen garrantzia: ba adin honetan haurrek badituzte baliabide batzuk bere burua ziurtatzeko horren aurrean: jolastea eta mugitzea bat da: bere baitan aurkitzen duen plazer horretan bere seguritatezko pertsonen

errepresentazioa eraikitzen duelako (beraiekin izandako plazera gaurkotuz). Bestaldetik bete-hustu, Joan-etorri, desagertu-agertu, bildu-sakabana-tu, etabarreko ekintzetan "presentzia-absentzia dinamika menderatzen ari da. Horrela bera da banaketa prozesua menderatzen duena, bere autonomia prozesuaren oinarriak lantzen.

Autonomia eta sozializazioa nola lantzen du haurrak psikomotrizitate gelan?

1.- Hasierako harreman egokia bizi. Bizitzaren lehenengo urtean, Winnicott-ek dioenez "Bai handi bat" eman behar zaio. Haurrak eraiki behar du: "NAIZ" eta izateko gogoia eduki. Ahalguzti magikoaren garaia da. Dena ematen zaio umeari. Errealitate bere muga eta frustrazioekin itxoin behar du. Umea besteaz eta bere afektuaz betetzen da. Atxikimendua egiten du.

2.- Progresiboki errealitatearekin kontaktua egin behar du. "Ez txikiak" jasoko ditu bere pertsonari esandako "bai handi"-aren gainean. Besteak eta bere burua pixkanaka bereiztuko ditu. Haurra, pixkanaka, banatu behar da, bere burua eraiki behar du ondo bereiztuta.

Afektibitatea eta legea, hezkuntzaren oinarri. Bere izatea zalantza kanpo dagoenez, frustrazioak jasotzen hasi daiteke. Inoiz ez, errepresioa. Haurren premiak errespetatzen, frustratu daiteke nola bete premia horiek. Adibi-

dez: "bota ditzakezu pilotak airetik baina ez egurrak": inportanteena da haurraren botatzeko premia hori errespetatzea, baina bideratu dezakegu nola egin botatze hori: hemen dago sozializazioaren hasiera.

Frustrazio horretan ez dago haurren autonomiaren murrizketa. Alderantziz: aukera ematen zaio bereizten eta argitzen besteen identitatea eta berea. Haurra hasten da sartzen errealitatean, gizartearen, elkar bizitzan.

Psikomotrizitate gelan frustrazio legea lantzen dugu: "bai bainan ez" edo "ez baina bai": "indar handia duzu eta bultzatu ditzakezu dorreak edo saltoak eman, edo karraxiak bota, bainan ezin duzu mina eman", hau da: "bai, erakutsi dezakezu zure indarra, zure energia baina ez mina ematen.

Orduan haurrak badaki bideratu ditzakeela bere gogoak eta energiak espazioan, objektuetan, bere gorputzaren bitartez, bere jolasen bitartez, berak egindako eraikuntzen bitartez... baina besteekiko errespetuaren barruan.

"Gela honetan egia izango balitz bezala dena egin daiteke" "gela honetan gauza askotan jolastu dezakezue bainan minik eman gabe eta minik hartu gabe".

Bukatzeko, esan behar dut gure gaurko gizarte honetan sozializazio prozesuak premiazkoak bihurtzen ari direla: afektibitatea eta legea behar dira, biak.



Pablo FEO

Haurrei zuzendutako maskaragintza

“Umea bere bidea aurkitzen hasten denean urrundu egin beharko gara”



Pablo FEO

LEITZAKO TAILER OKUPAZIONALAREN ARDURADUNA

Papera, kartoia eta gomaespuma erabiltzeko teknika egokiak irakatsiko dira tailer honetan, inauterietan edota urtebetetzeetan erabiltzeko.

Baliabide merkea, eskura daukaguna eta sormena lantzen laguntzen diguna da maskaragintza, ze beste gauza positibo ikusten dizkiozu maskaragintzari?

Asko dira eskolan honelako eskulana egiteko aukerak: ihauteriak, urtebetetzeak, eguberrietako festak, olentzeroak, antzerki saioak, buruhandiak, erraldoiak... Horrez aparte, hamaika teknika erabili daitezke, gehientsuenak aurrekontu txikia behar dutenak. Gainera, eskulan irekia da, norberak bere irudi propioa lantzeko aukera du, ez du zertan besteen berdina izan behar. Horixe bera delako maskararen esperientzia; kanporatu nahi duzun imajina janztea. Denok dakigu zein motibagarria den. Umeak barrenean duen sormena erabat islatu egin daiteke. Hori da gure erronka.

Sarri liburuetatik atera, eta sormena lantzea zaila egiten zaie

irakasleei. Teknika egoki batzuk ikasteak laguntzen du sormena lantzen?

Teknika berriak ikastea dudarik gabe nolabaiteko pizgarria da, bide berriak irekitzen dizkigute. Betiko eskulana eraberritu egin daitezke, aukera gehiago zabaltzen dira. Kartoiak eta ontziak lotzeko lokailu berriak daude gaur egun, kola bereziak, termokolak, paper engomatuak, dentsitate ezberdineko gomaespumak... Hala ere, esan bezala, pizgarriak baino ez dira, bide berriak irekitzen dituzten giltzak besterik ez. Benetako bidea gero hasten da sormenak gidatuta. Horretan erregairik inportanteena, dudarik gabe, askatasuna da. Umea erabat libre sentitzen denean hasten da jolasa-lana-erakuntza.

Papera, kartoia, gomaespuma eta etxe guztietan topa daitezkeen ontziak erabiliko dituzue maskarak egiteko. Ohiko gauzeekin artea egin eta sormena landu daiteke, beraz?

Gaur egun gero eta ohikoagoa ari da bihurtzen eskulanan sorten fenomenoa. Jolas programatuak bezala funtzionatzen dute. Kit edo sorta ireki, jarraipideak irakurri eta puzzle bat balitz bezala osatu ahalik eta modu perfektuenean. Sormenarako lekurik ez. Zenbat eta ohikoagoa eta arruntagoa den erabiltzen den materiala, orduan eta harriagoa emaitza. Honela ezerezetik sortuko balira bezala azaltzen dira egiten diren eskulana. Ez al du horrek guztiak artetik gehiago, kinder arrautzako jostailua muntatzea baino?

Haurra bera lana-artearen gidari izan dadin proposatzen duzu. Horrek haurren autonomian asko lagunduko du, ezta?

Hala beharko luke, dena den zenbait kasutan honelako lan aske baten



aurrean umea balduta sentitu daiteke. Horretarako gaude gu, gidatzeko baina ez bukaerara arte. Umeak bere bidea aurkitzen hasten denean urrundu egin beharko gara, orduan hasiko da bere ibilera askea. Bukaeran umeak berak bakarrik egiteaz aparte, bakarrik erabaki duela ere sentitu behar du.

Ikastaroan parte hartuko duten irakasle eta hezitzaileak haurren rolean jarriko dituzu ezta, mozten, itsasten, tolestean? Nola egituratuko duzu ikastaroa?

Umeen rola barrendik bizi behar da bere baitan gertatzen dena ulertzeko. Orrialde zuriaren egonezina, proposamen pizgarria, teknika eta materialen jabetzea, ikasleek sentitzen dutena ezagutuz hobeto lagunduko diegu. Hori izango da gure lana; proposatu eta lagundu, inoiz ez epaitzea, ez bukaerako lana ezta prozesua ere.

Nire asmoa maskara bihurtu daiteken edozein gai erabiltzea da, papera, ontziak, kartoia eta gomaespuma bereziki. Lehen egunean papera eta etxe guztietan topatu daitezkeen ontziak erabiliko ditugu. Mozten, tolestean, itsastean, lotzen eta sormena pizten ikasiko dugu. Nik ereduak eman, eta ikasleak umeak balira bezala jokatu dute, baikoitzak bere bidea eginez. Karetak, txanoak, buruhandiak... Bigarren egunean, kartoia izango da protagonista nagusia. Buruhandiak, olentzeroak, kareta, txanoak... Azkenik gomaespuma ezberdinez baliatuko gara ikasitako teknikak lantzeko.

Jakin badakit irakasleen artean ideia on, berri eta eraginkorren gosea badela. Proposamen modernoak, eraginkorrak eta efektistak ere behar dira. Hori guztia asetzen ere ahaleginduko naiz. Horrela irakasleren motibazioa eta sormena pizten lagunduko dut.

Ana ELORZA

Oh happy, kanta eta dantza ezazu

“Nerabeek konfiantza handia hartzen dute jendaurrean zerbait egitean”



Ana ELORZA

FILOLOGOA ETA MUSIKARIA. AHOTSAKSTUDIOVOICES.

Gaur egungo abesti modernoak kantatu eta dantzatzen gonbidatzen ditu Ana Elorzak irakasleak eta ikasleak, beldurretatik eta lotsatik askatzen laguntzeko, gozatzeko eta norbere buruarengan konfiantza berreskuratzeko.

Nerabeak kantura eta dantzara erakartzeko, beharrezkoa al da euren gustuko kantuak jorratzea? Ze garrantzi du aukeratzen den kantuak ikasleen motibazioan?

Nerabeak izan, txikiagoak izan, edo edozein adinetakoak izan, kontuan eduki behar da ze garai ari den bizitzen, eta garai horretan ze musika duen gogoko. Irakaslearen erantzukizuna da ikaslea dagoen garai horretan motibatzen duen kantua aukeratzea, eta egokitzea. Ez da nerabeen gustuko edozein kantu aukeratu behar; abestiak ezaugarri batzuk eduki behar ditu, eta egokitu egin behar da aurrean daukatzun taldearen arabera. Adibidez, punk

abestibat eskatzen badute gazteek, ziu-renik bere horretan ezingo da landu eskolan, baina abesti horren zatiren bat hartu eta moldatu ahal izango da taldean lantzeko, eta horrela motibatuago egongo dira ikasleak.

Abesti guztiak ez dute berdin funtzionatzen talde guztietan, aurrean dituzun nerabeen nahi eta ezaugarrietara moldatzen jakin behar da, neska-mutil kopurura, mutilen ahots aldaketara... Taldeak berak emango dizkio irakasle-ari pautak.

Jarduera honekin kantuaren parametro guztiak lantzen dira, ezta? Hizkuntza, ahoskera, arnasketa, erritmoa... nola lantzen dira parametro horiek guztiak?

Kantua eta dantza ikasturte guztian zehar landuz, normalean astean bi edo

hiru ordu eskaintzen zaizkio jarduera honi, eta horrek eskatzen du ikasturte hasieran ikasleen ezaugarriak ezagutzeko casting edo proba batzuk egitea, ikasleen perfilak ezagutu ahal izateko, hizkuntza gaitasuna, belarria, musika ezagutza, nola mugitzen diren, ingeleza nola ezagutzen eta ahoskatzen duten, erritmoa... ezagutu ahal izateko. Parametro guztiak aparte lantzen dira, ariketa desberdinen bidez lortzen dugu informazioa. Lehenengo lauhilekoan datu guztiak ditugu, eta horien arabera, kantuak egokitu eta landu ditzakegu. Baina horrek ez du esan nahi belarri txarra duena, edo dantzarako gaitasun gutxiago duena jardueratik kanpo gelditu behar denik; alor teknikoan, edo programazioan... beti dago zeregina, eta nerabeak estimula daitezke.





Kantuarekin batera dantza lantzen duzu zuk. Ze jarrera dute gaztetxoek dantzara gonbidatzen dituzunean?

Ikasle askok, adin honetan, eurek eskatzen dute dantza sartzea ikuskizunetan. Telebistaren indarrez, bideo-klipen eraginez, bereziki pop musikaren zaleek eurek eskatzen dituzte koreografiak. Ikasleak dantzak eskatzen hasi ziren une berean, ni Cuatro telebistarako dantza eta kantua nahasten zituen formatua lantzen ari nintzen, eta gero Oh Happy!-rekin hasi nintzen ETBn, eta ondorioz, nire esperientziak eta gaztetxoek eskariak bat egin zuten une beretsuan, eta koreografiak lantzen hasi ginen. Nerabeak, azken batean, kultura horretatik datoz eta euren nahikariz, jolas-orduetan prestatzen dituzte koreografiak, euren iniziatibaz sortzen dira askotan.

Nerabeak protagonista sentitzeko jarduera egokia da Oh Happy-k eskaintzen duena, ezta? Nola

lantzen duzue aspektu hori?

Edade honetan, dantzarako edo kanturako dohain oso onak izan arren, lotsa handia dute nerabeek, eta hori da arazo handiena. Lotsa, beldurrak eta gora-behera handiak dituzte nerabeek garai honetan, eta horiek gairak eta urratsa ematera bultzatzen dituzunean aldaketa handia egiten dute nerabe askok. Beren buruagan konfiantza handia hartzen dute, hasiera batean ikusten ez zituzten gaitasunak dauzkatela ohartzen baitira, estimulari esker. Kasu bakan batzuetan kontrakoa ere gerta daiteke, baina normalean, aurrera urratsa egiten duenak, eta jendaurrean kantatzera edo dantzatzera animatzen denak, aldaketa handia egiten du. Ziklo oso batean ikasleen eboluzioa jarraitu ondoren, ikusi dut aldaketa handi hori.

Irakasleen egitekoa zein da ikasleekin kantua eta dantza jorrazteko garaian?

Irakasleak oso kontuan izan behar ditu adinaren problematika hauek, lo-

tsak, beldurrak eta gora-beherak, eta horren arabera bultzatu eta estimulatu beharko ditu ikasleak.

Horrez gain, nire kasuan adibidez, ahotsa lantzen dut kantuan espezialista naizelako eta horretan jakinduria dudalako, baina espezialista izan gabe ere, zenbait gako kontuan izan behar dira, adibidez, kantuak moldatu egin behar direla aurrean daukagun taldearen ezaugarrien arabera; DBHko bigarren mailako ikasleen kasuan, esate baterako, ahotsa aldatzen hasten zaie mutili, eta ze puntutan dauden oso kontuan izan beharko du irakasleak jarduerak funtziona dezan. Ikastetxea ze puntutan dagoen ere kontuan izan behar du irakasleak, musikarako ze zaletasun eta ze ezagutza duten ikasleek, dantza egiten duten eskola orduetatik kanpo... ezaugarri horiek guztiak kontuan izan behar ditu irakasleak.

Ikastaroan, oso modu sinplean, ikasleek eskatzen dituzten gaur egungo kantu modernoak lantzeko errekursoak eskainiko dizkiegu irakasleei.

Mirari BEREZIARTUA

Coaching

Aldaketa zurkaizten



Mirari BEREZIARTUA

PEDAGOGIAN ETA COACHING-EAN LIZENTZIADUNA

Pertsonen eta Erakundeen Lidergo Berrirako entrenamenduetan espezializatua da Mirari Bereziartua. Zentzu bila dabilenari bere bertsiorik onena lantzen lagundu nahi dio, ikastaro honen bidez.

Zer zentzu dauka coaching-ak gaur egungo gizartean?

XXI. mendeko gizartean, bizitza ulertzeko era eta egunerokotasunean jarduteko era aldatzen ari dira. Bizikidetzan, ezaugarri berriak azaleratzen ari dira. Etengabeko aldaketa horrek sortzen duen kaosaren aurrean, aukerak erantzukizunez hartzea dagokigu, bai bakarka eta bai taldean. Gainera, aldaketa etengabea bada ere, aldagai berriekin dator orain, eta zitzu bizian. Bestalde, ezaugarri berri horien artean, bada bat bereziki aipatu beharrekoa: bizitzari begiratzeko era analitikoak erabiltzetik sintetikoak erabiltzera pasatu gara, letretan oinarritutako ikuskera par-

tzialetik irudiak giltzarri dituen osotasuneko ikuskera erabiltzera, hain zuzen.

Sakonetik aldatzera bultzatzen gaitu berrikuntza horrek. Eta, era berean, izugarriko ezinegonak sortzen ditu zenbaitengan. Izugarriko ikara sentitzen du zenbaitek horren aurrean, Lurrak oinazpitik ihes egin izan balio eta oinarririk gabe gelditu izan balitz bezala.

Horri aurre egiteko, laguntza bikaina ematen du coaching-ak, eta 2004tik, Euskal Herrian liderrak gara Coaching-aldaketa eskolakook.

Zertarako balio du?

Aldaketaz ari garenean, ezagutza ulertzetik haratago joan beharra dago, aldaketa semantikoan bakarrik ez gelditzeko. Hain zuzen ere, desberdin egitera jo behar dugu. Inertzia zaharretatik irtetea eta zentzua biziberritzea dagokigu. Gainera, Euskal Herriak etorkizuneko erronka berriei erantzun die-

zaien, hor ditugu, besteak beste, euskal curriculumean hartutako konpromisoak. Gizarte osoa hartzen du erronka horrek, bizitza osoan eta bere osotasunean: euskal curriculum eta hor ageri diren bost kompetenziak.

Beraz, aurrez aurre daukagun aldaketarako behar ditugun konpetenziak eskuratzen trebatzeko balio digu coaching-entrenamenduak.

Eta zer da konpetentzia?

Guztiok dauzkagun gaitasunak dira, praktika egokiarekin trebatuta lortzen ditugunak. Labur esanda, konpetentzia zera da: gaitasun garatua.

Beraz, nola lagundu trebatzen pertsonari eta erakundeei, aldaketaren erronkari egoki aurre egiteko?

Nola lagundu pertsonari bere bizitzan liderra izaten? Pertsonekin lan egiten duen edonori nola lagundu komunikazioa eta harremanak oinarri eta es-





tilo desberdin batean gauzatzen? Nola aldatu erakundeetako buruak, kudeatzaile izateari utzi eta lider bihur daitezten?

Erronka horiei modu eraginkorren erantzuteko, bada osotasunean eta gizatasunean oinarritutako laguntza modu bat, coaching izenekoa. Politikan, sindikalismoan, hezkuntzan, osasun arloan, kiroletan eta abarretan ezaguna da jada laguntza modu hori.

Inertziatik irten eta bizitzaren zentzua etengabe biziberritzerakoan, nola lagun dezake coach edo entrenatzaileak?

osorik hartuz, oinarriari, estiloari eta elkarriketaren jardunbideari jarraituz. Bai gure komunikazioan eta bai bizikidetzan, norbera izaten, pentsatzen, sentitzen, ekiten eta egiten jakiteko.

Hori guztia, ezagutzaren transmisio hutsetik jauzia egin, eta entrenamenduan murgilduta.

Nori laguntzeko balio du coaching-ak?

Adin eta espezializazio guztietako pertsoneri eta erakundeei laguntza

eman ahal izateko entrenatzen gara. Hobekuntza eta garapena lortzen laguntzeko. Horretarako, besteak beste, motibazioa, komunikazioa, konfiantza, oreka pertsonala eta nahien adierazpena lantzen dira coaching-aren bidez.

Pertsonen, taldeen eta erakundeen ikuspegi boteretsua sustatu behar dugu, irtenbideak bilatu, gizatasunean eta pertsona guztien puntu sendoetan oinarrituta. Norberaren kontzientzia, izan nahi dugunarekiko erantzukizunezko konpromisoa eta hori lortzeko norberak dituen ahalmenekiko konfiantza indartzea da helburua.

Erakundeetako titularrentzat, zuzendarientzat eta talde profesionalentzat egokitzen ditugu gure entrenamenduak, eta gizabanako bakoitza printzipio, estilo eta jardunbide zehatz bidez entrenatzen dugu, entrenatzaile-coach izateko.

Zertan oinarritzen da Coachingaldaketak eskaintzen duen sistema?

Coachingaldaketa eskolak sortu duen sistema Thomas Leonard-en eta

John Witmor-en entrenamendua ulertzeko moduan oinarritzen da. Eta adimen soziala eta emozionala, berriz, nagusiki Daniel Golemann, Jhon Cotter, Erich Fromm eta Mihaly Csikszentmihaly-ren lanetan. Guztiekin, aldaketa egiten ikasteko joera berrirako *kit* oso bat eskuratzen da, interesatua protagonista bihurtzen duena, hura bera hartuta bidaia orriaren subjektutzat.

Saioak praktikoak ala teorikoak izango dira?

Esandakoari barne lotura ematea du helburu gure lanak, eta horretarako entrenatzea. Gizakiok oinez ikasten dugun bezala egiten dugu hori. Ibiliz ikasi ibiltzen. Horretarako, beharrezkoa den marko teorikoa modu xumean eta laburrean eskaintzen da, gurasoek txikitan gertutik babesa eta motibazioa ematen diguten bezalaxe. Kasu guztietan, ibili, norberak egin behar du. Beraz, coach-entrenatzaile lana nola egin ikasteko, entrenatuz egiten dugu, hasierako pausoak elkarrekin eginez, eta, ondoren, bakoitzak bere bideari jarraituz, lortu arte.

Urtxintxa Zertan jolastuko gara?

**“Jarduera ludikoaren bitartez
haurrak oinarrizko gaitasunen garapena lortzen du:
psikomotorra, kognitiboa, afektiboa eta soziala”**

Modu praktikoan, jolasa haurra-
ren garapenean zeinen garrantzi-
tsua den azalduko du Urtxintxak, eta
era berean, garai bateko jolasen eta
gaur egungoen, edota atzerrikoen
eta Euskal Herrikoen artean dauden
antzekotasunak azalderatuko dituzte,
kasu guztietan, jolasen oinarria oso
antzekoa baita.

**Ikastaroa praktikoa izango den
arren, landuko den guztia oinarri
teoriko sendoen gainean eraikia
dagoenez, aurkez al ditzakegu
oinarri teoriko horiek?**

Jolasari buruzko perspektibarik za-
harrena ikuspegi filosofikoak ematen
digu. XIX. mendetik hasita, lehenik oi-
narri biologikoak hartzen dira, gerora
antropologikoak eta azkenik psiko-
logikoak. Teoria klasikoek aditzera ema-
ten dutenez, jolasak nortasunean gar-
rantzia du, eta, era berean, jolasa nor-
tasunaren araberakoa dela. Teoria mo-
dernoek jolasak haurraren garapenean
duen garrantzia nabarmentzen dute.
Psikologiaren ikuspegitik aztertzen du-
te jolasaren garrantzia.

Gure jolas ikastaroetan alderdi psi-
kologikoan oinarritzeaz gain, alderdi
kulturalari ematen diogu garrantzia.
Horretarako Johan Huizingaren teoria
hartzen dugu oinarritzat. Huizingaren
arabera “*Jolasa jarduera aske bat da,
zerbait "balitz bezala" egitean datza-
na eta bizitza arruntetik kanpoko
jarduera bezala ikusten dena, baina,
bala ere, jokalaria erabat beregana
dezakeena, inongo interes materialik*



*eta probetxurik atera ez arren, den-
bora eta espazio jakin batean egiten
dena, arau jakin batzuk beteaz era-
tzen den ordena bati jarraituz, eta
eguneroko mundutik bereizteko mis-
teriozko giroa sortzen edo mozorroa
erabiltzea dakarrena”*

**Ze garrantzi du jolasak haurraren
garapenean? Eta zergatik da
garrantzitsua jolas bat edo bestea
aukeratzea?**

Helduen ikuspegitik, jolasa garan-
tzi handiko elementua da haurraren ga-
rapenaren hainbat alderdi lantzeko.
Jarduera ludikoaren bitartez haurrak
oinarrizko gaitasunen garapena lor-
tzen ditu: psikomotorra, kognitiboa,
afektiboa eta soziala.

Jolasa garrantzizkoa da haurraren
gorputzaren hazieran. Haurrak bere
giharrak dantzan jartzen ditu jolasean
egiten dituen mugimenduekin. Jolasak



gauzak aurkitzen eta esperimentatzen
ere laguntzen du. Haurrak distantzia
eta espazioa kalkulatzeko ikasten du,
gauzak eta jostailuak manipulatu; eta
euren forma, neurri, tenperatura eta
bestelako elementuez ohartzen da.
Pentsamendua ordenatzeko ere lagun-
garri da; haurra denboran kokatzen da,
espazioaren nozioak barneratzen ditu,
bere hipotesi propioak egiaztatzen di-
tu, eta ezagutzak lantzen ditu. Azkenik,
balio terapeutikoa ere izan dezake.
Egunerokotasunetik ihes egiteko au-
kera ematen du, eraberritzea eragiten
du, eta gordeta dagoen energia guztia
askatzen laguntzen du.

Beraz, jolasak aukeratzekoan al-
derdi guzti hauek kontutan hartzea ko-
meni da, ezarritako helburuen arabera
jolas mota bat edo bestea egokiago
izango baita. Hala ere, ia jolas guztiekin
alderdi guztiak lantzen direla esan dai-
teke.

Garai batean gure aitona-amonak zertan jolasten ziren azalduko duzue ikastaroan. Zer nolako jolasak ziren?

Ikastaroan, aitona-amonei entzundako jolasen berri emango dugu. Jolas asko guregana iritsi dira eta egungo haurrek egiten dituzte: sokasaltoan, korroan, ezkutaketan... Beste batzuk kaleetatik ia desagertu dira. Beraz, ikastaroaren atal honetan horietaz arituko gara. Alde batetik, hainbat trebetasun jolas egingo ditugu; tortoloxekin jolastuko gara, txantxariak edo poxpolinak zer diren ikusiko dugu, intxaur jolasak egingo ditugu. Bestetik, jolasteko aspaldi erabiltzen ziren abestiak aztertu eta landuko ditugu.

Zer nolako bilakaera izan dute Euskal Herriko jolasek?

Garai batean erabiltzen ziren jolasen eta egun erabiltzen diren jolasen oinarria bera da. Nagusiki aldatzen ari dena jolas horietan erabiltzen diren elementu materialak dira, jostailuak. Kristalezko kanikarik ez zenean, fruituekin egiten ziren gaur egun kanikekin edo dendetan erosten diren modazko beste elementuekin egiten diren jolasak. Horien lekuko dira intxaurrek erabiltzen ziren jokoak (intxaurreta, amia barruan, lau lauka, botxo...). Bestetik, kaleko espazioak aldatu direnez eta jolas askea egiteko zailtasun handiago dagoenez, esan daiteke jolas fisikoa mu-

rrizten ari dela jolas kognitiboaren alde.

Munduko beste herrialdeetako jolasez ere mintzatuko zarete. Munduko haurrak oso gauza desberdinetan jolasten dira ala oinarri/ezaugarri antzekoak dituzte?

Orokorrean munduko haur jolasen oinarria oso antzekoa da. Aldatzen dena "apaingarria" dela esan daiteke: kultura bakoitzak ematen dion forma. Lehen aipatu dugun adibidearekin jarraituz, Euskal Herrian intxaurrekin egiten ziren jolasak Saharan harriekin egiten ziren. Jolasteko moduetan ere ezberdintasun batzuk egon daitezke, esate baterako, Papuako hainbat tokitako haur jolas guztiak kooperatiboak dira, ez dago irabazlerik eta galtzailerik. Nahiz eta jolas hauen oinarria beste tokitako oinarri bera izan: harrapaketa jolasak, ezkutaketa jolasak... Esan daiteke, kultura ezberdinetako haurren arteko komuneko ezaugarri garrantzitsuenetakoa jolasa dela.

Herrialde bakoitzeko kultura islatzen al da jolasetan? Adibideren bat jar zenezakete?

Jolasteko moduaren bidez herri baten identitatea transmititzen da; eta, haurren artean, kultura sormen eta transmisio handiena jolastuz bideratzen da. Euskal jolasek Euskal Herriko ohiturak ezagutzeko aukera ematen

dute: garai batean zertan eta nola jolasten ziren, zer baliabide erabiltzen zituzten, non jolasten ziren... Beste hainbeste esan daiteke jolas jarduera horietan erabiltzen ziren esaera eta esamoldeei buruz, abesti, dantza eta ipuinei buruz.

Adibidez, *Xirristi mirristi, gerrena pla, olio zopa, kikili salda, edan edo klik* abestitxoak aspaldiko haur jolas bat da. Mikel Laboak ezagunak egin zituen hitz jokoak entzuterakoan sorgin hizkera etortzen zaigu burura. Artxila mortxila bezain magikoak egiten zaizkigu garai batean dona-dona egiteko erabiliak ziren lelo onomatopeiko hauek. Hala dira ez Zugarramurdiko sorginek erabiltzen zituztelako, haurrek bere jolasetarako erabiltzen zituztelako baidak. Eta abesti horrek adierazten duena aztertuko bagenu aspaldiko hainbat ezaugarri aurkituko genituzke.

Zer topatuko du zuen ikastaroa egitera doanak?

Ikastaroaren aurkezpenean adierazi genuen bezala, udako hiru egun hauetarako jolasteko proposamena luzatzen dugu. Ikastaro honetan ez dugu teoriazatuko. Praktikara bideratutako ikastaroa da, eskolako ikasleekin jolasteko tresnak ikasiko ditugu; jolas klasikoak, berriak, Euskal Herrikoak, mundukoak, luzeak, motzak, lasaiak, arinak... Beraz, jolastuz ikasi eta ondo patsatzeko ikastaroa dela esan daiteke.



Hedabideek sexuari buruz igortzen diguten informazio pilatik nola bereiz dezakegu nerabeei begira baliagarria dena eta ez dena



Komunikabideak eta sexuak

Komunikabideek bi sexuak errepresentatzen dituzte egoera ezberdinetan, lanean, kirolean, aisialdian, harremanetan... horrela, gizonak eta emakumeak nolakoak izan behar dugun esaten digute, batzuetan zuzenean, bestetan, zeharka. Informazio hori irensten hasten gara txiki-txikitatik eta sinesten! Horra gure lana hezitzaile bezala: hedabideek gure irudimena betetzen duten bitartean, irizpide propioak izateko gaitasuna eraikitzen laguntzea!

Sexuen hezkuntza zertarako?

Mutil eta neskei, gizon eta emakume bihurtzeko bidean laguntzea da helburua. Gizentasuna eta emakumetasuna modu pertsonal eta aukeratuan bizitzeko aukerak erakustea eta erabakiak hartzeko perspektiba eta ezagutzak helaraztea. Honek, esperientzia positiboak bizitzen lagunduko die, dudarik gabe.

Zein funtzio betetzen dute komunikabideek sexuen hezkuntzan?

Hezkuntza sexuala legez derrigorezko edukia den arren, ez dago inolaz



Nerea SANCHO ESNAOLA

EHUKO SEXUALITATEAREN PSIKOLOGIAKO IRAKASLEA

bermatua eta egiten denean, ordu exkax batzuk eskaintzen dira eskoletan. Etxekoak, aldiz, bakoitzak ahal duena egiten du, askok baliabide urritasuna dutela adierazten dutelarik. Gauzak horrela, telebistak, zinemak, publizitateak, bideojokoek eta aldizkariak hezten gaituzte, haur, gazte eta zahar. Benetako emakumea izateko zein ezaugarri fisiko behar ditugun izan eta nolako bizitza erotikoa izan behar dugun esaten zaigu. Gizonari, gizon izateko,

nola adierazi behar den eta zein trebetasun izan behar dituen zehazten zaio.

Gizakiok dugun ezaugarri naturala da bakoitza desberdina izatea. Bestetik, kanpotik eskatzen zaizkigun ezaugarri fisiko, maitale gaitasun edota adierazpen moduak ez dira egokitzen gure bizitzetara. Kontraesan honen aurrean, pentsatu ohi dugu, gu garela egokitzen ez garenak. Inposatzen zaizkigun ereduak hertsia eta ezinezkoak direla argi izan behar dugu!

Komunikabideetatik zer da baliagarria?

Guztiak balio digu. Baldintza batekin, aztertze gaitasuna garatzea. Prentsa, telesailak, aldizkariak... denak balioko digute hazteko eta gure sexualitate propioa ereiteko. Aztertze tresnak baldin baditugu, komunikabideez gozatu, barre egin eta gure gizon edo emakume izateko bidea aurkituko dugu.

Komunikabideetatik baztertzea zaila baino zailagoa den garai hauetan, euren edukiak perspektibaz ulertu eta erlatibizatze gaitasuna garatzea ezinbestekoa dugu.

Hitza eta irudigintza

Hitzak errazagoak dira kritikatzeko, ulergarriagoak direlako eta asimilatze-ko denbora gehiago hartzen dugulako baina irudien botere, kopuru eta azkartasunaren aurrean, oro har, babesgabe gaude.

Jada 2-3 urteko haurrentzako liburuak, marrazki bizidunak, telebistako iragarkiak, zinemak... gizon eta emakume izateko era mugatuak deskribatzen dizkigute. Eredu horiek alde aurretik ezagutzen baditugu, entretenigarri horietaz disfrutatu dezakegu intoxikatuak izan gabe.

Argazkigintzaren eragina sexuzio prozesuan

Gizon eta emakume oro, sexualki garatuz doa bizitza osoan zehar. Argazkigintzak berak, bere eragina izan du zeregin horretan 1826. urtean lehen argazki egonkorra lortu zenetik egungo photoshoparen garaira arte. Gure irudikapen kolektiboak osatu ditu. Begiratzen ikasteko garaia dugu.



Zer da ederra izatea? Dove kosmetiko etxearen iragarkia.



Nolako gorputzak dira onargarriak? Cuore aldizkariako bi azal.

Euren balio propioak erein ditzaten, euren aniztasunak ezagutu eta onar ditzaten lan egin behar dugu. Euren gorputzak maitatzeko eta partekatzeko ezinbestekoa da. Helduon parte-hartze aktiboa beharrezkoa dugu mutil eta neska bezala, gizon eta emakume izanez pozik bizi daitezten.



Nolako behar du izan gure maitasun historiak? Avatar **filma**.



Nolako izan behar da neskon jarrera? **Bideojoko**etan emakumearen errepresentazioa.



Edoskitzaroaren inguruko hausnarketa. Erditze prestaketaren inguruko **argazki** erakusketa batetik hartua.

Gizon eta emakume izateko ereduak marrazkigintzan

Hurrek eta gazteek erabiltzen dituzten materialak irudiz josiak daude. Irakurketa arinagoa egiteko dela pentsatu ohi dugu eta askotan ez gara

konturatzen, marrazkiek gaitasun hezitzaile handiago dutela testuek baino. Neska eta mutilen jarrerak definitzen dituzte baita gorputz 'normalak' nolakoak behar duten izan zehazten ere.



Nolako mutilak izan behar dugu? Espermatozoide baten interpretazioa **grafikoa** ikasliburuetan.



Ulertzen al dugu ikusten duguna? Neskatxa **pornoa** ikusten.



Nolakoak behar dute izan gure harremanak eta norekin? Disney faktoriako **marrazki bizidunetako** bikoteak.

Erotismoa sarean

Erotikari dagokienean, esan daiteke 10 urtetik aurrera haurrek bideo pornografikoak ikusten dituztela sarean. Harreman erotikoen naturari buruz hauek ikusiz ikasten dutena nahiko za-

lantzagarria eta kezagarria suertatzen da. Honen aurrean, helduon azalpenak beharrezkoak dirudite, isiltasuna baino gehiago.

Euren balio propioak erein ditzaten, euren aniztasunak ezagutu eta

onar ditzaten lan egin behar dugu. Euren gorputzak maitatzeko eta partekatzeko ezinbestekoa da. Helduon partehartze aktiboa beharrezkoa dugu mutil eta neska bezala, gizon eta emakume izanez pozik bizi daitezten.

Atzeko atzetik



Marina PINTOS

PIANOJOLEA, MUSIKA IRAKASLEA ETA YOGA IRAKASLEA

Denok dakigun moduan, gaur egungo bizimodua estres sortzailea da: egun guziaz korrika, ekintzez betea, beldur eta kezka betetako pentsamenak, beharrezkoak diren atsedenak hartu gabe... Horren ondorioz, gorputza gogortu, zahartu eta gaixotu egiten zaigu, gure emozioak aztoratuta egoten dira eta burmuina edo pentsamenak oso mugituta egoteaz gain, horiek kontzentratzeko arazo larriak izaten ditugu (pentsa zenbatetan egoten garen ekintza batean murgilduta, beste hamar mila gauzetan pentsatzen ari garen bitartean...). Haurrek ere egoera hori bizitzen dute, eta, horrez gain, burmuinean izugarrizko estimulu pila jasotzen dute leku guzietatik: telebista dela, internet sarea, joko elektronikoak, kale-tako publizitatea, argiak, soinuak...

Yoga eskolan

Ondorioz, adimena kontzentratzea oso zaila egiten zaie, eta beste gaitasunak (ulermena, memoria eta sormena, esaterako), ahulduta izaten dituzte.

Azken urteetan hezkuntza sistema pixka bat aldatu dela dirudi, baina oraindik, nire ustez, asko dago egiteko. Emozioei garrantzia ematen hasi zaie, baina arnasa, gorputza eta buruaren gaitasunak garatzeko ariketak zeharo ezezagunak dira eskola gehienetan. Normalean, haurrei kontzentratzeko, ulertzeko eta datuak buruz ikasteko eskatzen zaie, baina ez zaizkie gaitasun horiek garatzeko tresnak ematen. Norberak "ahal duen bezala" egiten du, eta, askotan, saiakera horretan huts egiten dute, emaitzak behar bezala betetzen ez dituztela ikusita. Yogak proposatzen dituen teknikak aproposak dira haurrak eta beraien gaitasunak era orekatu, osasuntsu eta lasaian behar bezala garatzeko. Haurraren emozioak aztoratuta baldin daude, adibidez, jolas garaian lagun batekin haserretu delako, zaila izango zaio irakasleak esaten duen horretan arreta jartzea, aurretik lasaitzen eta zentratzen ez bada. Haurrak, arnasa era lasai eta sakonean hartzen ikasten badu, erlaxatu egingo da, eta erlaxatzen bada, arreta handiagoz arituko da. Ezagun da arreta handiagoari adimen

handiagoa dagokiola, eta beraz, ikasketak eta hausnarketa guztiak hobeto bururatu eta bereganatuko dituela.

Yogak eta meditazioak sortzen dituzten onurak aspalditik izan dira iker-tuak, ez zientifikoki soilik, ospe handieneko munduko unibertsitateetan, baita AEBko eta Europako eskola askotan ere haurrekin izandako esperientziak behatuz.

Orain dela 20 urte, piano eta musika ikasle nintzelarik, hasi nintzen yogako teknikak ikasten eta praktikatzen. Jakin badakit yogak sortzen dituen onurak benetan gertatzen direla (kontzentrazioa hobetu, memoria garatu, emozioak lasaitu, gorputza orekatu eta lasaitu, eta abar). Zer gertatuko litzateke eskolatan haurrei lasaitasuna eta zorientasuna sentitzen lagunduko bagenieke? Agian datu gutxiago erakutsi eta horren ordez adimena eta memoria garatzeko teknikak erabili?

Bizitzen ari garen garaia aldatzen ari da eta horrekin batera heziketa sistemen aldaketa bizitzea espero dut. Orain arte baztertuak izan diren zenbait beharrei garrantzia eman, eta erakutsi diezaigun haurrei denon artean osasuna, oreka eta zorientasuna lortzen, gure eskura dauden tresna horiek erabilita. Horixe da nire desioa!



Haurraren bizitza ez dago familiako eta eskolako espazioetara mugatua, gero espazio zabalagoa eskatzen du.

Imanol Urbietta



**SENDABIDE
ALA IRUZURBIDE.
MEDIKUNTZA
ALTERNATIBOA PROBAN**

*Trick or Treatment?
Alternative Medicine
on Trial* liburuaren
euskarazko itzulpena.

**Egileak: Simon Singh eta
Edzard Ernst**

Eraginkorra ote da
medikuntza alternatiboa?
Proba zientifikoek
emandako ondorioak.

 15 €  e-booka 11 €

Edzard Ernst egilearen hitzaldia:

Medikuntzan doktorea eta medikuntza osagarria irakasten duen munduko lehenengo pertsona.

Uztailaren 5ean, Miramar jauregian, arratsaldeko 7etan.

Informazio gehiago www.elhuyar.org webgunean



GARATU Plangintza

UEUren eskaintza 11/12 ikasturterako



<u>Kodea</u>	<u>Ikastaroa</u>	<u>Orduak</u>	<u>Tokia</u>
016	Hezkidetzan hezten	20	Gasteiz
018	Kantuz eta haur poesiaren bitartez komunikazioa landuz	20	Bilbo
051	Baliabide pedagogiko hezkidetzailleak: jostailuak, jolasak eta ipuinak	20	Gasteiz
052	Baliabide pedagogiko hezkidetzailleak: jostailuak, jolasak eta ipuinak	20	Bilbo
058	Arte hezkuntza: musikaren baliabide tekniko eta espresiboak	20	Bilbo
069	Web 2.0. Oinarrizko aplikazioak HPBak dituzten ikasleekin gela arruntean erabiltzeko	30	Bilbo
183	Zientziaren dibulgazioa gelan: Zientzia, Sasizientzia eta Pazientzia	12	Eibar
263	Google earth eta google Maps, zientzia-hezkuntzarako tresna digitalak	30	Eibar (on-line)
347	Ikastetxean pertsonekin lanean	24	Bilbo
407	Hizkuntzak, kulturak eta lurraldeak	20	Eibar
463	Nerabeekiko lana irakaskuntzan, Deabru Ttipi, aingerutxo eta beste biktima batzuk	30	Donostia

Izena emateko epea: 2011/09/05 - 2011/09/23 (biak barne)

Bigarren matrikulazio epea: azaroa eta ekaina bitarteko ikastaroak

INFORMAZIO GEHIAGO:

Ione Narbaiza
943 82 14 26
i.narbaiza@ueu.org
www.ueu.org

